

# ARRASATE

## PRESS

Arrasate 1991ko Irailak 5, 116. zenbakia

Udalaren laguntzarekin eta AEDren ardurapean



**DIEGO MARTIARTU,**  
EEBBarren  
bizimoduaz  
asetuta

## Iturripeko kiroldegia

la-ia prest!

Jabier



### HOTZ - BERO

KLIMATIZAZIOA

Maalako Errabala 33- etxabehea,  
Tfnoak: 79 70 98 eta 79 67 54  
ARRASATE

- AIRE GIROTUA
- BEROKUNTZA
- ERAUZKETA  
(Estrazioak)
- ARAZKETAK
- MANTENUA

# ARRASATE 91 LEHIAKETAK

*Heldu eta gazteentzat*

Ipuina / Poesia / Bertso-paperak /  
Komikia / Argazkia

**Sari garrantzitsuak!**

Lanak aurkezteko epea azaroak 4ra arte.



AED. Pablo Uranga 4, etxabehea,  
20.500 Arrasate Tfnoa: 79 54 46


**Iokin**.....

**Zaitegi**.....

**V. itzulpen laburren  
sariketa**

- Gaia: "Energi iturrien bilakaera:  
etorkizuneko energia"
- Sariak: 1. saria: 250.000 PTA  
Akzesitak: 50.000 PTA
- Epea: 1991ko azaroaren 4a  
baino lehen.

AED. Pablo Uranga 4, etxabehea,  
20.500 Arrasate Tfnoa: 79 54 46



# ARRASATE PRESS

ASTEKARIA

### Argitaratzailea:

Arrasate Press taldea (AED)  
Azoka kalea 1, 20.500 ARRASATE.  
Tfnoa: 77 05 65

### Laguntzailea:

Arrasateko Udala

### Erredakzioa:

Beñardo Kortabarria, Edurne Mujika

### Publizitatea eta harpidetzak:

Amaita Sanz  
Tfnoa: 77 08 15

### Maketazioa:

Goio Arana

### Erredakzio-kontseilua:

Jose Felix Diaz de Tuesta, Harry Zاراia, Iñaki Mendiguren

### Kolaboratzaileak:

Josemari Velez de Mendizabal, Mikel Irizar, Karmele Zuazubiskar, Juan Martin Elexpuru, Eukeni Olabarieta, Arantxa Lizaso, Gerardo Markuleta, Estepan Plazaola, Jesus Mari Garai, Juanito Leibar, Jerardo Elortza, Blanka Jauregi, Klarion Taldea, Joseba Vallés, Karmelo Urizarren, Iñaki Aranburu, Hankamotz, Maite Toledo, Atalataikoan, ASA taldea, Xabin Arrieta, Txipi Ormaetxea, Arantxa Ozaeta.

### Inprimategia:

Gertu Koop. E. (Zubillaga. Oñati)

### Banaketa arduraduna:

J. L. Arejolaleiba

### Copyright:

ARRASATE PRESS

Tirada: 7.000 ale

Lege-Gordailua: 1124/88

ISSN: 0214-4654

Frankeo kontzertatua: 37-60

ARRASATE PRESSek ez du bere gain hartzen aldizkarian adierazitako esanen eta eritzien erantzunkizunik.



ARRASATE PRESS paper birziklatuan egiten da.

# Ongi itzuliak izan

**O**ngi itzuliak izan lerro hauetara; lerro hauen presentziak adierazten duen bizimodu arruntera, alegia. Hilabete luzeko oporraldia amaituta —gehienontzat bederen— berriz ere eguneroko aginduetara makurtu behar, hasi besterik egin ez duen ikasturtearen mamia eta edukina diseinatu ahal izateko. Atzean geratu zaizkigu uda honek ekarritako gertaerak. Ur horrek ez du ostera errotarra mugiaraziko. Hala ere, ezin uka, igaro den abuztua ez da gizadiaren historian hizki txikiz idatziko. Eta jazoera horien ondorio zuzena berehala helduko zaigu.

Ez dut uste, gure herriko alkatezaren inguruan opor aurretik izan ziren zurrumurru eta tirabirak berriro gaurkotuko direnik; Foru Aldundia-  
ren kide diren bi alderdiek hemengo bakoitzaren arazo badituzte orain mahai gainean eta, horrela, bakean utziko dute Arrasateri zegokion kontentziosoa. Ez litzateke gaizki egongo. Behintzat, gainetik ibili zekigukeen mamuari tiro ematea izango bait litzateke. Nolanahi ere, erne ibili behar, izan ere autobidearen gaineko kontsentzuak kontraprestazioak suposatu bait dizkie jeltzaleei.

Iazko oporretako mintzagaia Golkoko gatazka izan zela gogoratuz, aurtan ere ekialdetik zerbitzatu zaigu,

gure buruak politika -aztertzaile trebe bilakarazteko aukera. Hori duk folloia, Gorbachov, Yeltsin, Yanaev, Pugo eta konpainiak eratu dutena!

Egun batetik bestera, hirurogeita-mar urteko amets liluragarri... eta ustela zeharo suntsituta geratu da, mendebal-balore erakargarriak lagun. Ez dakit zenbat errepublika diren —dagoeneko— estatu askearen estatusa aldarrikatu dutenak. Gurean ere —Euskadin esan nahi dut, noski— alderdi politiko abertzaleak fotografian atera nahi eta “euskal eskubide ukazina”z aritu zaizkigu, bainujantzitan. Ohituta gaude, hitz ponpoxtako diskurtsuetara... eta, beraz, badakigu jakin zertan geratzen diren hitz-jario horiek, behin jaka eta gorbata jantziz gero.

Hasi berri den kurtsoari begira, oraindik oinak lurtean ipini besterik egin ez ditugunean, lanerako gogoia eskatuko nuke, inori eskatzerik balego. Zer esanik ez, Arrasatek eta, orokorrean, euskal gizarteak alferkeria uxatu behar du gainetik, batipat teorizazio merke eta antzuetan aritzearen alferkeria. Izan ere, oporraldietako atsedean astintzaitetik zuzen-zuzen pulpitora igarotzenohituak bait gaude euskaldunok eta, tamalez, hantxe irauten dugu hurrengo oporraldirate.

*Josemari Velez de Mendizabal*

## MIREN

### APAINDEGIA

Zarugalde 23, 2. Ezk.  
Tfnoa: 79 96 90 ARRASATE

## comercial san juan

Garibal 12.  
Tfnoa: 79 13 05

## hikein

### ENMARKETAZIOA

Zerkaosteta 4,  
Tfnoa: 79 13 84



**gili gili**

Iturriotz 9. Tfnoa: 79 94 57

**HIRE**

Liburu eta oparidenda

Iturriotz 4., Tfnoa 79 14 84

**ARAMAIO**  
**okindegia**

Maisu Guridi 3  
Tfnoa: 79 36 46

oleoak, **sArtea**  
mihixeak,  
akwarelak eta  
eskulanak

Ferreras 25. Tfnoa: 77 10 95

**ZENBAKI**

Kontabilitatea  
Fiskalitatea  
Lana  
Zuzenbidea  
Juridikoa  
Finantzaketa  
Aseguruak

Basabe industrialdea  
Tfnoa: 79 88 75  
79 75 99

ARETXABAleta

**Ehun eta laurogeitamar harmaila auzotegira**

Korrika eta presaka bizi garen gizarte honetan gauzak ahalik eta samurren egiteko sarri behar izaten ditugun toki publikoak eskura "izatea" gauza ederra da. Gure herri aldapatsu honetan "kalean" daude udaletxea, liburutegia, zineak... ez, ordea, epe laburrerako Makatzena auzora eramane bertan jarraitzen duen auzitegia. Aspaldi kalean zegoena txiki edo zaharra geratu bazitzaigun, oraingoa urruti geratzen zaigu asko eta askori.

Ehun eta laurogeitamar harmaila igo behar izaten dituzte gure aiton-amonak urtero eskatzen dieten "fe de vida" delakoa eskuratzeko, eta bertara ezkontzeko asmotan joaten garenoi ere halako tristura antzeko bat sartzen zaigu, paperak etxe arrunt baterako sukaldean egin eta ezkontzeko egongelara pasatzen gaituztenean. Asko eta asko, aiton-amonak barne, ez dira bertaratzen igo behar duten eskailera mordoak beldurtuta.

Antza denez, ba omen dago 400 metro karratuko lokala Santander banketxearen ondoan auzitegia bertara eramateko, baina prestakuntzek ez dute hasteko itxurarik.

Guzti honegatik, arazo honi irtenbide bat aurki diezaioketenei lehen bait lehen zerbait egin dezatela eskatzen diet.

M. B. M.

**Gazteak irtenbide bila**

Gurea zineman zabalduko Gaztetxea itxi zenetik, politikariek sarritan adierazi dute gazteriaren arazoari irtenbide egokia eman nahi diotela: Hauteskunde-kanpainetako leloa, ze kontua da gaur arte, behintzat ez dela ezer egin, eta urteak joan dira.

Gazteak ez dira geldi egotekoak, eta azken boladan Ospitale Zaharreko etxabehean ireki dute beren topalekua. Nire susmoa zera da, ordea, hortik ere laster botako dituztela.

Batzuentzat okupazioaren irtenbidea ez da zilegi; nik, berriz, uler dezaket postura hori. Zer egin behar dute gazteek bestela, zain gelditu? Hori ez da beraien izakera. Honez gero badakite instituzioek ez dutela batere erraztasunik eskariei erantzun egokiak emateko, eta beraz, beren kasa bilatzen dituzte.

Ospitale Zaharretik kanpora bidaliko dituzten horiek, gai izango ote dira gero alternatiba bat eskaintzeko?

Fermin

**LANTEK**, hedatzen hari den eta CAD/CAM sistemen banaketan lehena den enpresak, behar du

**PROGRAMADOREA**

**ESKATZEN ZAIO:**


- PASCAL lengoaiaren ezagupen handiak.
- Soldadutzatik libre.
- CAD/CAM eta makina-erremintei buruzko ezagupenak ere baloratuko dira.

Interesatuak bidali curriculum eta helburu ekonomikoak helbide honetara:




Basabe Poligonoa, C 1º  
20550 Aretxabaleta (Gipuzkoa)  
Tfnoa: (943) 79 72 00  
Faxa: (943) 79 97 41

# Hasi den ikasturterako, asmorik bai?



**Gorka Arregi**  
(Ikaslea)

Aurrean daukagunari zorte pixka batekin eutsi beharko diogu, aurtan Donostian injinerutza ikasten hasiko naiz eta.




**Lurdes Jauregialzo**  
(Irakaslea)

Betiko moduan segitu beharko dugu.



**Jesusa**  
(Jubilatua)

Gure proiektua zer izango da, bada? Erresidentzia da gure proiektua...



**Anton Aranbarri**  
(Jubilatua)

Orain jubilatuta nago eta nire asmoa betiko bizimodua egitea da. Irtengo naiz norabaitera, baina aparteko asmorik ez daukat.



**Alemana**

**Haurrak**

**Maila guztiak**

**Frantsesa**

**Gazteak**

**Azterketetarako prestakuntza**

**Ingelesa**

**Helduak**

**Ohizko ikastaroak eta trinkoak**

Araba Etorb. 4. Tfnoa: 79 01 32

**Memesa**  
**79 42 22**

LURRINDEGIA

**ERTZ**

OPARIETAKO ARTIKULOAK

Ferrerias 28, B. Tfnoa: 79 08 70 Arrasate

**I**  
**R**  
**A**  
**T**  
**I**

Ferrerias kalea  
Tfnoa: 79 71 80

## BEHARREZKO TELEFONOAK

### ERITETXEAK

Arrasateko Eskualde-Ospit. ....	79 53 00
Igualatorioa .....	79 05 00
Santa Agedako Ospitalea	
(gizonak) .....	79 39 00
(emakumeak) .....	79 44 11
Buru osasunerako zentrua .....	79 90 11

### GURUTZE GORRIA

Bergara .....	76 55 76
---------------	----------

### DYA

Antzuola .....	76 62 91
----------------	----------

### ANBULATORIOAK

Arrasate (Especialista) .....	77 12 64
(Txanda hartzeko) .....	77 03 46
Oñati .....	78 08 52
Eskoriatza .....	79 98 58
Aretxabaleta .....	79 74 58
Aramaio .....	(945) 45 51 16

### ANBULANTZIAK

Gipuzkoako ambulanziazak .....	45 87 44
--------------------------------	----------

### UDALTZAINGOA

Oñati .....	78 04 11
Bergara .....	76 14 69
Arrasate .....	79 14 39
Aretxabaleta .....	79 10 52
Eskoriatza .....	79 03 22

### ERTZAINZTA

Arrasate .....	79 71 99
----------------	----------

### SUHILTZAILAK

Udal taldea .....	79 09 00
Udal taldeko suhiltzaile	
burua .....	79 20 72
Zubillagako Eskualde-Parkea ..	78 28 00

### MATXURAK

Urak (udal zerbitzua) .....	79 09 00
Elektrizitatea (Iberduero) .....	79 05 81
Gasa .....	900 40 05 23
.....	79 78 44
.....	79 76 78

### GARRAIOAK

Taxiak .....	79 12 22
P.E.S.A. ....	79 14 19

### HIRUGARREN ADINARENZAKO


ZENTRUAK	
Iturbide Egoitza .....	79 72 11
Abaroa jubilatuen egoitza .....	79 81 57

### KONTSUMITZAILEARENZAKO

INFORMAZIOA	
Deba Garaiko Kontsumitzaile eta	
Erabiltzaileen Elkarte .....	79 87 77
KIUB-OMIC .....	79 51 55

### MONTEARRONGO LIBURUTEGIA

Monterron .....	77 01 05
-----------------	----------



## 6

### OSTIRALA

• • •

- Zinea: Alai: "Ghost", 10.30etan.
- Gatzagako jaiak: Arratsaldeko 8etan Ramon Elejalderi omenaldia.

Gaueko 12etan, dantzaldia "Berrakatz Band" taldearekin

- Uribarri-Erguineko jaiak: 7etan txikiteo herrikoia "Zoroak" taldearekin. 10etan dantzaldia "Bries" taldearekin.
- Goardiako farmazia: egunez: Azkoaga, Ferrerías. gauez: Camacho, Bergara.

## 7

### LARUNBATA

• • •

- Zinea: Alai: "Rocketeer", 5, 7.30 eta 10etan.
- Gatzagako jaiak: 12.30etan Euskal Dantzak, 5.30etan akordeoi- kontzertua. 6etan bertsolariak. 12etan "Bries" taldearekin dantzaldia.
- Uribarri-Erguineko jaiak: 11.30etan korrikalariak eta 7etan zezenak.

## Kirol Agenda

### FUTBOLA

• • •

- Mondra eta Mungiaren arteko partidua. Igandea, Atxabalpen arratsaldeko 5etan.
- Mondra eta Tafallako Peña Sport taldeetako gazteen arteko partidua. Larunbata, Atxabalpen goizeko 11etan.

### HERRI KIROLAK

• • •

Uribarri-Erguineko jaien barne, igandean eguerdiko 12.30etan Arimazurian plazan.

- Goardiako farmazia: egunez: Irizar, Erguin. gauez: Puy, Bergara.

## 8

### IGANDEA

• • •

- Zinea: Alai: "Rocketeer", 7 eta 10etan.
- Gatzagako jaiak: 5etan pilota partidua. 6etan japoniar bonbak eta umeen jolasak.
- 12.30etan Arimazuriko plazan herri-kirolak eta bertsolariak. 6etan zezenak eta ponyak. Ordu berean Iturrieko pilota-lekuan pilota partiduen finala.
- Goardiako farmazia: egunez: Aurora Ruiz, Maala. gauez: Puy, Bergara.

## 9

### ASTELEHENA

• • •

- Zinea: Alai: "Rocketeer", 7 eta 9.30etan.
- Hezibiden, 8.30etatik 1etara, hezkuntza-erreformari buruzko-ikastaroa.
- Goardiako farmazia: egunez: Morales, San Andres. gauez: Guallar, Bergara.

## 10

### ASTEARTEA

• • •

- Zinea: Alai: "Rocketeer", 7etan eta 9.30etan.
- Hezibide Elkartean, 8.30etatik 1etara, ikastaroa.
- Goardiako farmazia: egunez: -Azkoaga, Ferrerías. gauez: Camacho, Bergara.

## 11

### ASTEAZKENA

• • •

- Hezibide Elkartean, 8.30etatik 1etara, ikastaroa.
- Goardiako farmazia: egunez: -Irizar, Erguin. gauez: Puy, Bergara.

## 12

### OSTEGUNA

• • •

- Folk jaialdia, "The barely works" taldearekin, gaueko 10.30etan eta Monterron parkean.
- Goardiako farmazia: egunez: Aurora Ruiz, Maala. gauez: Camacho, Bergara.

### TXIRRINDULARITZA

• • •

- Gatzagako jaien barnean, igandean goizeko 9etatik aurrera txirrindulari afizionatuen lasterketa.

### PILOTA

• • •

- Bigarren mailako pilotari profesionalen partidua, igandean arratsaldeko 5etan Gatzagako frontoian.

## Ikastaroak

### • Euskara

AEK eta Udal Euskaltegian, datorren ikasturterako matrikula epeak zabalik daude. Euskaltegi bietan maila guztiak ematen dira, eta ordutegi desberdin askotarako aukerak daude. Informazio gehiago nahi izanez gero, AEKko telefono zenbakia 77 03 69a da eta Udal Euskaltegiakoa 79 70 77a.

## Musika

### • Folk jaialdia

Atzerapen batzuren ondoren "The Barely Works" folk taldearen musika emanaldia ikusi eta entzuteko aukera izango da datorren ostegunean gaueko 10.30etatik aurrera Monterroneko parkean. Ostegunak egun egokiena ez badirudi ere, Monterronera ikusle asko bertaratea espero da, taldeak merezi du eta. Sarrerak 500 pezeta balio ditu, eta gazte-txartela erakutsiz gero 300 pezeta ordainduta sartzeko aukera izango da.



## ANTZERKIA

### "Harizpe" Pastorala Monterronen

Datorren hilaren 14ean, Monterroneko parkean Iparraldeko muskilditarrek "Harizpe" pastorala antzeztuko dute arratsaldeko 4.30etatik aurrera. Iaz egin zuten moduan aurten ere, antzezpena girotu nahian, eguerdi aldean desfilea egingo dute.

AED, Arrasateko Udala eta Maritxu Kajoi batzordea arduratu dira pastorala bi urtez jarraian Arrasatera ekartzeaz, hegoaldeko jendeak antzerki-mota hau ezagutzeko aukera izan dezan ere.

"Harizpe" pastorala ikusi duen baten hitzetan, "iazko pastoralarakin konparatuz gero, askoz ere arinagoa da. Alde batetik denbora gutxiago irauten duelako, eta bestetik kantu gehiago dituelako".

"Harizpe"ren antzezpena ikusi txartela nahi duenak, zazpirehun pezeta ordaindu beharko ditu sarrera aurrez erosita eta zortzirehun sarreran erosita. Aurrez erosi nahiz gero, ohizko tokietara joatea besterik ez da egin behar.

eta mantzanila hartzekoa. Igandean, goiz partean kros herrikoa, Gorosarriren ekitaldia eta arratsaldean berriz pilota partiduak. Jaiei bukaera emateko Kaixo taldearen dantzaldia eta ohizko etxaleru jaurtiketa.

## Lehiaketak

### • Jokin Zaitegi

Bostgarren urtez AED elkarteak Jokin zaitegi itzulpen laburren lehiaketa antolatu du. Lehiaketa parte hartu nahi dutenek etorkizuneko indar iturriei buruzko itzulpenak aurkeztu beharko dituzte. Lanak, azaroaren 4a aurretik AEDra igorri beharko dira, eta gutxienez 12 foliotako luzera izan beharko dute.

Aurreko urteetan, jende ugari hartu du parte lehiaketa honuetan eta aurten, ikusirik sariak dexente hobetu direla, partaidetza handiagoa espero dute antolatzaileek. Lehiaketaren irabazlearentzat 250.000 PTako saria jarri dute eta 50.000 PTako akzesitak lehiamahiaren ustez ondo burutzen diren lanentzat.

## Jaiak

### • Uribarri-Erguin

Ostiralean hasi eta igandean amaituko den ekintza zerrenda prestatu dute Uribarri-Erguineko jaietarako. Ohi denez, etxaleruen jaurtiketak emango die hasiera jaiei. Segidan txikiteoa Zoroak txarangaekin eta gauean dantzaldia Bries taldearen eskutik.

Larunbat goiza korrikalarien lasterketak beteko dute, goizeko 11.30etatik aurrera. Arratsaldean, mus-txapelketa lauretan hasita eta zazpiak al-

dera zezanak Olarango zelailan. Igande goizean herri kirolariak protagonista bihurtuko diren moduan, arratsaldean pilotariei egokituko zaie aukera bera. Gaueko bederatzietan, azken trakaren bidez jaiak amaitutzat joko dira.



### • Gatzaga

Asteburuan, Gatzagan herriko jai nagusiak burutuko dituzte. Ostiralean, arratsaldeko 8etan burutuko den afari-merienda eta iluntzean Berakatz Band taldearekin izango den dantzaldia aipa daitezke.

Larunbaterako, berriz, goizeko 9etarako txirindular-lasterketa iragartzen da, eguerdiko ordubietarako sokamuturra eta ondoren herri-bazkaria. Arratsaldean, Peñagarikano eta Mañukorta bertsolarien saioa entzuteko aukera izango da, gauean berriz Bries taldearen musikarekin dantza egitekoa eta goizaldean txokolatea

## Ikastaroa

### • Hezibide Elkarte

Hezkuntza-erreformaren aurrean zerbait egin beharra dagoela ikusirik, Hezibide Elkarteak irakasleen prestakuntzari buruzko ikastaro bat antolatu du datorren astelehenera asteazkenera bitartean (goizeko zortzi terdietatik ordubietara). Ikastaro horren antolatzaileak Euskadiko Irakasuntza-Kooperatiben Federazioa eta Hezibide Elkarte dira, eta inguruko ikastetxeetako 30 irakasleri dago zuzenduta.

“Kooperatiben III. Mintegian plan estrategikoa onartzen bada, Fagor taldea zatitu egin beharko da, taldeko kooperatibak sektore desberdinetan sar daitezten. Erabaki horrek, Arrasateko Kooperatiba taldearen barreiatzea dakar berekin; hau da, ohituraz, Arrasateko Kooperatiba taldearen ezaugarria izandakoaren amaiera.

LKak, eskema berrian, izan duen protagonismoa galduko du neurri handi batean eta kooperatiba arrunt baten itxura hartuko du. Logikoa dirudi Lankide Aurrezkiak, kooperatiben munduan zer esan handia izatea, baina Mondragon taldeko finantzen mater papera galtzen du.

Bestalde, egituraketa sektorialaren ondorioz eta talde osoaren adostasun barik, kooperatibak enpresa pribatuei saltzea oso zaila izango da.

(El Correo Español egunkariak)

“Borrokak -presio ekintzak- eguneroko bizitzaren zatia dira. Espainiar estatutik datozen arauak ezin ditugu onartu, hil arte borrokatu behar dugu”, esaten zion Zabartek gertuko zelda batean zegoen beste preso bati. Honek, Yoyes ETAkidea erailtzeko zein arrazoi zeuden galdetu zionean ez zuen zalantzarik izan: “Borroka armatuan sartzen denak ezin du utzi. Yoyesena armadako general bat etsaiarengana pasatzea bezalakoa da, eliminatu egin behar da, gehiegi dakielako”.

(Panorama aldizkariak)

“Iaz, onomastika-batzorde akademikoak Euskal Herriko Mendien Katalogoa berrikustea amaitu zuen. Lan hori, Euskal Mendi-Federazioaren enkarguz egin zen.

(...) Besaideri dagokionez, garbi ikusi zen hori dela idazkera zuzena, eta ez Betsaide edo Betzaide, inoiz idatzi izan den bezala. Bertako euskaldunek hala ahozkatzen dute behintzat.

(J.L.Lizundiak, Euskaltzaindiako Onomastika Batzordeko Idazkariak, Deian)

Zer da Uribe Auzoko eguneko ospitalea?

Benoa, zer den esan arretik lehenik eta behin zergatik sortu den azalduko dut. Santa Agedako ospitalean konturatu ginen Arrasaten jende asko zegoela laguntza psikiatrikoaren beharrez; hau da, Santa Agedan ingresatzeko besteko larritasunik ez, baina ambulatarioko tratamendua baino zerbait gehiago behar zutenak. Gaixo hauek arazoak izaten dituzte bai lanerako eta bai gizarterako beste edozein arlotan parte hartzeko ere. Hori ikusirik, Osakidetzarekin harremanetan jarri, eta egunean zehar gaixo hauekin lanean aritzeko ospitale bat egitea pentsatu genuen. Ospitalea herrian bertan kokatzea garrantzitsua zela iruditu zitzaigun, eta horregatik jarri dugu Uribe Auzoan (lehengo Eroskiren alboan). Gure asmoa hogeitaz laguneko talde bat sortu eta beraiekin hainbat ekintza lantzea da. Irailaren biamasi gara lanean, eta oraindik taldea guztiz osatu gabe dugu. Momentuz, goizeko bederatzietatik eguerdiko ordubietara egingo dugu lan, nahiz eta aurrera begira ordutegia hedatzea ere posible izan. Ekintza horiek lantzeko sendagile bat, hiru psikologo, gizarte-laguntzaile bat eta monitore bat izango dira ospitalean. Garbi utzi nahi dut, gure ospitalea ez dela drogazale edo alkoholzaleentzat, arazo mentalak dituztenentzat baizik. Bukatzeko, ospitale hori publikoa dela esan nahi dut, hau da, bertako finantzaketa Osakidetzaren eskutik egiten dela. Beraz, zerbitzua dohainekoa da, eta bertan parte hartu nahi izanez gero, Arrasateko Osasun Mentaleko Zentruan eman behar da izena.



Iñaki Madariaga, Aita Meni ospitale psikiatrikoko sendagilea.



**IRAKASLE ESKOLA**  
Eskoriatza  
Gipuzkoa

Irakasle Eskola honek zera jakin erazten du:  
**1991-92 ikasturterako matrikulazio-epaia zabalik dagoela**

Espezialitateak:

- ZIENTZIAK
- HAUR-ESKOLA
- EUSKAL FILOLOGIA
- INGELES FILOLOGIA


Informazioa: Irakasle Eskola. Tfnoa: 943 / 79 04 40.  
Ordutegia: 9.00-13.00



**GIZON ETA  
EMAKUMEAREN  
MODA**

Otalora Z/g  
Tfnoa: 79 20 50  
ARRASATE





Xabier Zubizarretak aukera gutxi Lehendakaritza berreskuratzeko

## Mankomunitatea osatzekotan

### Irailaren erdikalderako Batzorde berria nahi

Deba Garaiko Mankomunitatearen osaketa berria oporrak baino lehen erabaki beharrekoa bazen ere, Arrasate eta Bergarako Udaletan ordezkariak izendatzeko egondako arazoan ondorioz, kontua irailera arte atzeratu zuten.

Gogoratu Mankomunitatea zortzi herrik osatzen dutela; gauzak horrela, Zuzendaritza Batzordean zortzi Udaltako 16 ordezkari biltzen dira herrien biztanlearen arabera: Arrasateko 4, Bergarako 3, Oñatiko beste 3, Aretxabaletako 2, eta Eskoriatza, Antzuola, Gatzaga eta Elgetako ordezkari bana.

Arrasateko Udalak, uztailean burututako plenoan lau ordezkarietatik hiru

izendatu zituen; HBko Xabier Zubizarreta, EAJko Jose M. Loiti, eta EAko Pedro M. Ruiz de Azua. Oraindik laugarren ordezkaria izendatzea falta bada ere, lehen bait lehen erabaki beharko da nori dagokion kargu hori, irailaren erdikalderako Mankomunitateko batzorde berria osatzea nahi da eta.

Era berean, bilera horretan ere 16 ordezkariak hurrengo lau urteetarako lehendakaria aukeratuko dute. Inguruko Udaletxeetan gauzak nola gelditu diren kontutan hartuta, badirudi Xabier Zubizarretak aukera gutxi duela kargua berreskuratzeko. Aukera gehien Jose Mari Loiti jeltzaleak omen du.

#### Unibertsitaterako autobusik ez

Egunero unibertsitatetik buelta egingo zuten autobusak lortzeko ahalginak egin badira ere, azkenean Arrasateko ikasleek ez dute aukera hori izango. Donostiako aukera hasiera-hasieratik baztertu zen, jendeak izenik eman ez zuelako; Bilborako autobuserena ordea, azken egunetaraino kolokan egon da, baina, garestiegi aterako zela eta bertan behera gelditu da.

#### Urkulu iaiz baino hobeto

Abuztuan euri asko egin ez badu ere, Urkulu ia beterik dago, bere gaitasunaren % 82,49an, 8.210.250 metro kubikorekin hain zuzen. Enrike Noainek, Foru Aldundiko Ingurugiro eta Obra Hidraulikoen Diputatu sozialistak aditzera eman zuenez, azkenengo urteekin konparatuz gero Urkuluko egoera aurrean askoz hobea da. "Azken urteetan zioen Enrike Noainek- Urkulu bere gaitasunaren ehuneko 65aren inguruan ikusten ohitu gara. Iaz, irailaren hasieran urtegia ehuneko 61,67an zegoen, eta aurtengoa pozik egoteko modukoa dela uste dut". Beraz, ez dirudi hurrengo hilabeteetan ur-mozketarik jasan behar izango dugunik.

#### JAIOTZAK

Tena Luque, **Mikel**. Abuztuaren 24ean.  
Ramirez Jauregi, **Mikel**. 25ean  
Elorza Prado, **Igor**. 29an.  
Marañon Peña, **Usue**. 29an.  
Romeo Jimenez, **Josu**. 31n.

# Construcciones ARRASATE S. L.

Udalpe 5, Etxabehea. Erguin auzoa. Tfnoa: 79 04 46 ARRASATE

Amaia antzokia

Amaia antzokia nork konponduko duen laster erabakiko da, datorren 16an eraikitzaileen eskaintzak aurkezteko epea bukatuko da eta. Amaia berrizteko, Andoni Mendizabalen proiektua onartu zen eta horren arabera, eskenategian, soinuan eta argiztapenean hobekuntzak egingo dira. Legeak bete arazten dituen berrikuntzak ere burutuko dira: berogailu-sistema, elbarrientzako pasabideak, premiazko irteerak, etab. Lanak burututakoan, Amaia antzokia 1030 eserlekurekin geldituko da.

Eguraldiaren xehetasunak

Ikerlanek emandako datuen arabera, abuztuko egunik euritsuena hamargarrena izan zen, metro karratuko 5,4 litro erori zirelarik. Orokortasunera iraganda, aipatu daiteke hil osoan bota dueneuri-kopurua, metro karratuko 13,5 litrokoa izan dela. Temperaturei dagokienez, abuztuko egunik beroena 28a izan zen, egun hartan termometroak 39,2 gradutaraino igo ziren eta; tenperaturarik baxuena berriz, hilaren 3an izan genuen, 12 gradutakoa hain zuzen.

Lapurretak

Udaltzaingoak jakitera eman duenez, bukatu berri den abuztuan bederatzi lapurreta salatu dira herrian. Salaketa gehienak autoetako irratiak ostu izanagatik jarri dituzte. Bi izan dira etxeetan egindako lapurretak. Aurreko urteekin konparatuz, abuztuko lapurretek behar egin dutela esan behar da.

TB pribatuak

Arrasaten eta inguruko herrietan oraindik ez dugu TB pribatuen seinalearik jasotzen.

Retevisiokoek adierazi dutenez, irailaren erdialdera hasiko dira Arrasaten telebista pribatuen emisioak.

Parrokiaren birmoldaketa

Dagoeneko prest dago San Juan Bautista parrokiaren birmoldaketa proiektua. Proiektu hori Mikel Lasa eta Alberto Mendieta arkitektoek egin dute, eta helburua XVI. mendeko itxura berreskuratzea litzateke.


Suteak

Abuztuaren azken egunetan beroa eta suteak izan genituen protagonista. Inguru honetan bi sute dira aipatu beharrekoak: bata, San Prudentzian izandakoa; eta bestea, Institutuaren atzekaldean izan zena.

# Txandaka

ALEX, GIZARTE-ERAGILE

**B**adira pertsonak gizarte-mugimenduetan murgildurik bizi direnak. Gizartearen antolakuntza zuzenagoa, berdina, partaidetza handiagoa bilatzen dutenak. Hitz batean, gizarte egoikiago baten antolakuntzaren atzetik lanean dihardutenak.



J. M. Mujika (\*)

Ezaugarri hau duten pertsonak ez dira hain ugari, baina badira, eta denok ezagutzen ditugu horietakoak.

Ikuspuntu batekin edo besterekin lan egingo dute. Helburu hau edo hura izango dute. Denek ez dute egitarau berdina. Batzuk eta besteak bereiz daitezke.

Bai batzuek eta bai besteek, aldekoak eta kontrakoak izaten dituzte eta ahaztezinak suertatzen dira.

Beraiek dira gizartea lozorrotik atera erazten dutenak; beraiek gizarteari hautsa astintzen diotenak; be-

raiek, aldizka bederen, gizartearen herdoila garbitzeko zorian jartzen dutenak eta gizartea koi-patu ere egiten da berorien proposamenak plazaratzen direnean.


Hauetako bat izan da Alex Goirizelaia. Ez da landare hutsa izan. Euskal herriko gizartea mugierazi nahi zuen, aurrera

egin zezan. Bere eta gure gizartea, zuzenagoa, berdina eta partaidetza handiagokoa izatea lortu nahi zuen.

Euskal herria, kooperatibagintza eta Fagor elkarrekin josita izan dira bere eskaintzak, emaitzak eta izerdiak jaso dituztenak.

Ez da erraz Alex Goirizelaia bezalako gizarte-eragile bat ahazten. Txanda hartu nahi dutenentzat gelditzen da eraginik, berak landutako proposamenak eztabaidatzen eta bideratzen.


(\*) Kooperatibista eta AEDko lehendakaria



## ERRASTI KRISTALDEGIA


Plastiko eta burdinazko hodiak  
beirina eta kristalak  
akzesorioak

Olarte kalea 47, behea Tfnoak: 79 22 55 79 14 25




zeure moda  
diseinatu eta sortzen  
laguntzen dizu

Zerkaosteta 5, behea.  
Tfnoa: 79 89 72 ARRASATE



Xabier Zubizarreta



Nekane Iglesias

## Alkatetza berriro jokoan?

### EAJ eta PSOE akordioa sinatzekotan Donostian

EAJko Gipuzku Buru Batzarra eta PSOE pasa den ostegunean Donostian bildu behar ziren, beste gai batzuen artean Arrasateko alkatetzari buruz akordiora iristeko asmotan. Jeltzale eta sozialistek akordioa lortuko balute, Xabier Zubizarreta alkatetzatik kenduko lukete eta Nekane Iglesias sozialista jarri Arrasateko Udaletxeko buru.

Arrasateko EAJko partaideei akordioari buruzko eritzia eskatzerakoan, ez zen posible izan erantzun garbirik lortzea. Jose Mari Loitik, EAJk alkatetzarako aurkeztu zuen hautagaiak, "Gipuzku Buru Batzarrak akordioa sinatu badu, ondo sinatuta egongo da - zioen - eta gainera, hartutako konpromezuak bete egin behar direla uste dut". Juan Carlos Garitanok, EAJko zinegotzietariko batek, bere aldetik oraindik gauzak duela bi hilabete bezala zeudela zioen, beren arteko bilerarik ez zutela

burutu eta. "Gainera -esan zuen zinegotzi jeltzaleak-, akordioa sinatzen bada Gipuzkoa mailan sinatuko da, Arrasaten guk oraindik ez dugu ezer hitz egin".

Ino Galparsorok, HBko bozeramaileak, Xabier Zubizarretari alkatetza kentzeko akordioari buruzko zurrumuruei ez zitzaie jaramonik egin behar eta esan zuen "hori kontuan hartu barik lanean segi, hartutako konpromezua aurrera eramateko. Lehen ere herrian oso giro txarra nabaritu zen horretan saiatu zirenean, orain ausardia handia beharko litzateke kontu berarekin etortzeko".

Gogora daiteke, alkatea aukeratzeko orduan EAJko bi zinegotzien botuek PSOErekin aurrez alkatetzarako zuen akordioa apurtu zutela. Gerora, EAJ Udaleko gobernuan sartu zen EA eta HBrekin lan-programa osatu eta gero.

## Usteak uste

**I**railaren etorrerarekin bat, berri ekin diogu lanari. Ez guk bakarrik, noski; Arrasate inguruan bizi garen gizakiotatik, gehienok. Hasiera guztiak motelak izaten badira, behar bada instituzioetakoak motelagoak, baina poliki-poliki horiek ere badoaz motorrak berotuz.

Azken hauteskundeetan sortutako emaitzen ondorioz, berrikuntzen bidetik jo beharko dute instituzioek. Hor dago Deba Garaiko Mankomunitatea, oraindik Zuzendaritza-Batzorde barik, baina laster lehen bilera burutzekotan. Hor dago Udaletxea ere, batzordeen banaketa egin berriarekin eta oraintxe martxan jarri beharrean; baita auzoalkatetzen ordezkartza berrien izendapena egin beharrean ere.

Proiektu berrien garaia izaten da iraila, aipatutakoak lekuko, baina baita atzera lagatako lanak berreskuratzeko garaia ere. Azken hauetakoen artean, ezin ahaztu Iturriperen inauguraketa, Uherkapeko auzia, edota Arrasate gobernatzeko akordioa, esaterako.

Arrasate Press-i ere irailak berrikuntzak ekarri dizkio. Joxe Aranzabal beste lan batera joan zaigu eta gelditzen garenoi, hark jarritako mailari eutsi eta gora egitea besterik ezin zaigu eskatu. Kontua uztailearen bukaeran eskatu. Bitartean zuek, gure moduan, ekin gogor egunerokoari, urtebete segituan pasatzen da eta.

BEÑARDO KORTABARRIA

**LEARAN**

**MARKO-JARTZEAK • LAMINAK • MARGOAK**  
Biteri Etorbidea, 11 ARRASATE



**SAMEGO**  
GARBIKETAK


Uriburu 24  
Tfnua: 79 70 39  
ARRASATE



## Txapela buruan...



**S**ri Lanka. **Joserra Marañon** eta **Pilar Garciak** Surrutirako bidaia pentsatu eta egin zuten. Hogeitabat egunez, tropikoko berotasunean ibili ziren, bertako marinelen bizitza ezagutu eta palmondoen gerizpeaz gozaten.



**B**ruselas. Gurasoekin batera egin zuten **Estibalitz** **Vitoriak** Luxenburgo, Belgika, Holanda eta Frantziatik zehar abuztuko bidaia. Estibalitzen ustez ikusgarriena Bruselas izan zen, horren adierazgarri Atomiun-aren aurrean egin zuten argazkia.



**G**atako kaboa (Almeria). Almeriako hondartzetan primeran pasatu zutela adierazi ziguten **Olga Arenaza**, **Bego Zubia** eta **Dorleta Urretak**. Basamortua bada ere, Almeria oso polita omen da eta gainera sekulako hondartzak omen ditu. Almeriaz gain, Cadiz eta Granada ere bisitatu zituzten.




**W**orcester (Ingalaterra). Oporrak ikasteko aprobetxatzen duenik ere badago, ingelesa kasu honetan. Argazkiko kuadrilako partaideen artean **Kontxi Coronado**, **Leire Madina**, **Eider Goñi**, **Libe Bereziartua** eta **Arantxa** agertzen dira. Ea aurkitzen dituzuen!


**VE ECUADOR**  
 Kontzeziño 2.  
 Tfnoa: 79 14 06  
 ARRASATE

**Monte  
 taberna**  
 Maalako errabala 11. Tfnoa: 79 20 56

**beatriz**  
 oinetakoak eta  
 poltsak  
 Erdiko kale 11. Tfnoa: 79 14 33  
 ARRASATE




**K**enia. **Kaiet Carabias,** eta argazkian agertzen ez den **Isabel Aramendiak** Afrika beltzerako bidaia egin dute oportetan. Hirietan bizitzen hasi diren beltzen bizimodua eta oraindik sabanan bizi direnena ezagutu dute. Aukeratzekotan, argi daukate azken hauena aukeratuko luke-teela.



**P**ortugal. **Joxebi Ramos, Imanol Muñoz, Tomas Muñoz, Bego Uribe** eta **Marisa Uribe**k elkarrekin igaro dute oporraldia, Portugalen. Bidean, gelditu eta argazkiak egiteko denbora hartu zuten. Gainera, Sorriako Calatañazor herrian ateratakoa da.



**F**raguas (Kantabria). **Jose Ignacio Jimenok** atera zien argazkia emazte eta alabari, **Raquel Antolin** eta **Marta Jimenori**. Hirurak Santander inguruan pasa dituzte oporraldiko egunak. Tokiak ezagutzeaz gain, hirurek Santanderko udako unibertsitatean arkitektura ikastaroa burutu dute.



**EGVZKIGRAF**

**Grafikagintza. Tipografia. Offset industrialia**

- Liburuak
- Aldizkariak
- Katalogoak
- Liburuskak
- Merkatal inprimakiak
- Bulegoko materlala

**IRABAZLEAK**

Argazki makina:  
**ROSA OTADUI**  
Telefonoa:  
**AMETS B. DE  
GEBARA**  
Erlojua:  
**HIRIART OTXOA**  
Afarria:  
**ANUSKA ELORZA**

**Zenbaki sarituak:**

**Clio autoa:**

**62.546**

**Kanarietarako bidaia:**

**47.405**




Iturriotz kalea 8, Tfnoa: 77 04 01  
ARRASATE

*Erikita*

SOINUA • BIDEOA • TB • KOMUNIKAZIOA


Otalora 25, Tfnoa: 77 13 20  
ARRASATE



Maalako Errabala 5, Tfnoa: 79 19 25  
ARRASATE

# Zotz-Motz

LEHIAKETA



**KATAIDE**

Kataide poligonoa, Tfnoa: 79 60 10  
ARRASATE




**Baskotour**  
BIDAIAK

Maixu Arano 2, Tfnoa: 79 32 22  
ARRASATE

**MECA**  
tailerrak


Araba Etorb. z/g, Tfnoa: 79 50 12 / 79 52 1 2  
ARRASATE



**Juanjo Iza, Jorge**

**Manrique eta Juan Cruz Zabaloak**

mendirako bizikletak hartu eta Santiagorako bidea egin zuten abuztuaren hasieran. Zazpi egun behar izan zituzten Conpostelara arteko bidea egiteko. Aldatz gogor eta haize indartsuen artean, une lau eta gozoak ere iragan zituzten. Azkenean, Santiagoa iritsi zirenean, hirurak pozik.



Epelde

▲ Berandu baina seguru, iritsiko zaie Arrasate Presseko zorion oparia **Goio Arrieta** eta **Feli Etxeandiar**i. Izan ere, bikote hau aurtengo apirilaren hamahiruan ezkondu zen, bidaiari Venezuelara joateko. Gure zorionik beroenak, nahiz eta berantiarrek izan.



◀ **Udal Euskaltegian** irakasle-lanpostuak bete behar zirela eta, 56 pertsonak aurkeztu zuten bere burua Eskola Politeknikoan egindako azterketara. Hasieran laurogeitamar pertsona baino gehiagok zuten izena emanda azterketara aurkezteko, baina badirudi azkenean atzera egin zutela.



**Parques  
y Jardines**

**PARKE ETA LORATEGIEN  
SORKUNTZA**

**LORAZAINTZAKO  
MANTENIMENDUA ORO HAR**

**LANDARE-BIRSORKUNTZA  
HIDROEREINTZAZ**

*Casa-Torre kalea. Tfnoa:94-681 90 82 ABADIÑO (BIZKAIA)*





*Izen*  
**PROPIOAK**


● **Ruiz de Cenzano, Jose Manuel**, 40, barakaldotarra, Arrasate Eskubaloi Taldeko entrenatzaile berria da. Aurretiaz Aloña eta Arrasateko gazteen entrenatzaile izana. Maisu industrialia eta merkatal errepresentantea.

● **Tereschenco, Leonid**. Errusiar honek, Alecoop bisitatu zuen. Tereschenco Sobiet Batasuneko Hezkuntza-Batzordeko presidentea da, eta bere bidaiaren helburua Alecoopeko produktuak ezagutzeari izan zen.

● **Alerbe, Iñigo**, 23, urretxuarra, Central Jet-Euskal Air taldearen fitxaketa berria. Goiherri taldetik dator. 1,92 metroko mutila, ala-pivot postuan jokatzen du. Majisteritza ikasketak egin zituen.



Aspalditik zebilen herrian **Albinako urtegi**an lutxoak zeudelako zurrumurrua. Ba, argitu da azkenean! Ikusi besterik ez dago **Gorkak, Kikik, Iñakik, Angelek, Jabik, Josek** eta **Anabelek** ur-bazterrean ia hilik topatu zuten lutxotzarra. Orain arte, lutxoak ote zeuden beldurrez, batzuk bainatzen ez baziren, argazkia ikusita, agian ez dira Aramaixotik aurrera joaten ausartuko.



◀ **Rosa Otadul, Amets B. de Gebara, Hirlart Otxoa**, eta **Anuska Elorza** izan ziren

*Zotz-Motz lehiaketako azken sarituak. Horiei eta lehiaketan parte hartu duten guztiei, eskerrik askol.*

• **SALGAI** •

- 3 logela osorik
- Sofa modularra
- Egongelako mahaia eta aulkiak oso egoera onean.

Tfnoa: 79 55 90

**JOSTEKO OIHAL DENDA**


Esperientzia duen jostuna behar da

Errekabarrena 20, Tfnoa: 79 80 90  
ARETXABALETA

**ITSASKI**

arrandegia  
arrain freskoa  
eta jaki izoztuak

Urbe Auzoa  
Arrasate. 79 98 94



Lanbide Heziketarako Zentrua  
LH1 TITULU OFIZIALA  
Ileapaindegia / Estetika

General Loma Plaza 4, 3.  
Tfnoa: 945 - 23 33 99  
GASTEIZ

Osasun-Ikasketarako Zentrua  
Klinika lag. / Puerikultura  
/ Kiromasaia



**Horategi**  
Kafetegia

Iturriotz 7, Tfnoa: 79 04 67

# Iturripe zabaltzekotan

**Segurtasun osoz esaterik ez badago ere, iraila bukatu aurretik Iturripeko kiroldegi berriko instalakuntzen inaugurapena egingo da, lanak bukatuta daude eta. lazko uztailean eman zitzaien hasiera Iturripe egokitzeko lanei, beraz urtebete baino gehiago lanak hasi zirenetik. San Juanetarako inauguratuko zutela entzuten zen, baina atzerapen baten ondorioz inaugurapen-ekitaldia oporraldiaren osterako utzi zen.**


## Instalakuntza txukunak

**B**errehun eta berrogoita zortzi milioiko aurrekontua izan du Iturripeko kirolgune berriak. Aipatutako dirutzarekin kiroldegi estalia eta kanpoko kirolgunea egin dira. Kiroldegi estalian hiru kantxa eta ikusleentzako 300 eserleku daude; kanpokaldean, berriz, 180 metroko atletismo pista, jauzi eta jauziketarako tokiak, tenis-kantxak eta frontoiak. Horrela, bapatean esanda, nahikoa baino gehiago dirudi; gainera, Musakolako kiroldegiko instalakuntzak ere hor daudela kontuan hartu behar da.

Dena dela, Arrasaten badira oraindik Mojategiko kirolgunearen edota Ferixalekuko pilotalekuaren zain daudenak: pilotari eta atletak esaterako. "Guretzat -zioen Fernando Zufiriak, Arrasate Atletiko taldearen entrenatzaileetarikoa, *Iturripe ia ez dakar ezer berririk. Atleten lana behar bezala burutu ahal izateko, pista*

*egokiak behar ditugu eta Iturripek ez dauka horrelakorik. Dena dela, bagenekien*

*Iturripek ez zigula ezer konponduko. Gure etorkizuna Mojategiko proiektuan*




Iturriperi azken detailletoak ematen

*dago. Iturripe ondo dago, eskolumentzat eta hasten direnentzat; guri ere mesede egiten digu, bide-ertzean entrenatu beharrean hor tokitxo bat badugulako".*

## Kirola deszentralizatu

**E**z diegu galdetu, baina seguraski pilota-taldekoek antzerako arrazomendua egingo lukete, hauek ere Ferixalekuko frontoiaren zain daude eta. Argi dago Iturripek, lehiaketa ofiziale-tan sartuta dabiltzan taldeei ez diela konpontzen dituzten arazoak. Ondorioz, argi dago erabilera beste alde batetik etorriko zaiola. Izan ere, Iturripeko kirolgunearen izate-arrazoia ez da konpetizioa; arrasatearren erdiak kirola egiteko izan ditzakeen aukerak bikoiztea baizik. Behintzat, zentzu horretan hitzegiten zuen Xabier Zubizarreta alkateak. "Iturripeko kiroldegia, oso ondo bukatutako kiroldegia da, diseinuari begiratuz gero ondo baino hobeto egindakoa. Hala ere, Iturripek duen abantailarik handiena bere kokapena da, San Andres, Erguin edo Alde Zaharrean bizi direnek dagoeneko Musakolaraino joan beharrik ez dutelako izango. Alde horretatik, Iturripe asko erabiliko dela espero behar da".

AUKEAko lehendakariak, Luis Iriondok, antzerako iritziak zituen Iturriperi buruz hitz egiterakoan. Hau da, herriko inguru horretan bizi den jendeari kirola egiteko aukera handiak emango dizkiola. Horretaz gain, Iturripek ikastetxeei ere mesede handia egingo diela esaten zuen AUKEAko lehendakariak. "Orain arte, astean zehar Erguin, La Asuncion, San Viator, edo Eskola Profesio-



Estetika aldetik Iturripeko kirolgunea oso txukun gelditu dela argi dago

*naleko ikasleak Musakolara joaten ziren, herriko beste ikastetxeen moduan. Orain, bi tokitan banatzeko aukera izateaz gain, hemen inguruan kokatutako ikastetxeko ikasleak Iturripera etorriko dira eta ez herriko beste puntaraino”.*

**Mojategiko atletismo-pistak eta Ferixalekuko pilotalekua zertan daude?**

**A**rgi dago batzuei kalterik ez, eta beste batzuei mesede egingo diela Iturripeko instalakuntzak martxan jartzeak. Hala ere, lehen aipatutako bi proiektuak aurrera eramateak, kirol-azpiegiturari dagokionez, Arrasateri izugarrizko maila eman diezaioke: Mojategiko eta Ferixalekuko proiektuak hain

zuzen. Bata, Mojategikoa, oraindik hasi barik dago, eta Ferixalekuko pilotalekuarena, geldituta.

Aipatutako bi kasuei buruz argitasunik eman dezakeenik badago, hori, kasu honetan ere, Xabier Zubiza-

rreta alkateada. *“Mojategiko atletismo-pisten proiektua berde samar dago. Foru Aldundian izan den erreleboa kontuan hartuta, berriz ere jestionatu beharreko gauza da. Denbora-kontua da eta printzipioz ez dirudi zailtasunik egongo denik.*

*Ferixalekuko pilotalekuaren kasua ezberdina da. Jakinaenez, Uherkapeko lurren arazoan ondorioz, lanak geldituta daude, baina epaileak argi berdea emandakoan berrekingo diegu eraikitze-lanei. Egin ditugun azterketa teknikoan arabera argi dago obrak konfidantza osoz egin daitezkeela. Baliteke hil honetan arazo horri ere aurrerakadaren bat ematea”.*

Egin badaiteke, egin dezatela, bada.

**Artea eta arkitektura**

**I**turripe, estetikari begira oso txukun gelditu den ingurua dela zioen alkateak, eta egia da. Kiroldegi berria nola gelditu den begiratzera joanez gero, ikusleak ez du aparteko lan handi edo liluragarriarik ikusiko, gauzak bere tokian dituen gune bat, besterik ez. Praktikotasuna nagusi den toki bat.

Gauza bakar bat nabarmentzen da Iturripen, Kepa Landaluzek kirolgimerako egindako eskultura-iturria. Jakinaenez, Keparen eskultura lehiaketa bidez aukeratua izan zen. Inguruarekin bat eginez, bi funtzio betetzen ditu artista arrasatearraren lanak: bata estetikoa, eta bestea praktikoa; hau da, iturria, gainontzeko instalakuntzen moduan, erabiltzekoa da eta.

**Begoña**  
lurrindegia  
Drogeria / Jostailuak  
Opariak  
Gipuzkoa Etorb. 33,  
Musakola Auzoa. Tfnoa: 79 03 73

**URRATS**  
AHOLKULARITZA  
CARIBAI 3,  
Tfnoa: 79 87 74      ARRASATE

**ALTUNA**  
Lurrindegia  
bisutegia  
drogeria  
Maalako Errabala  
Tfnoa: 79 14 23



San Andres Eskola Publikoko argazki tailerra

kastolara joan behar zeula esan ziotenean jarri zitzaion horrelako aurpegia. "Ikastolara? Baina... ez dakizue oporretan hobeto ibiltzen dela?... Ea bada, pentsa ezazue zertxobait, zertarako joan ikastolara?". Erantzunaren zain gelditu zen neskatoa,

hankak tinko eta besoak gerrian. "Ziur heziketa eta lanbidearen roiloaz aterako zaizkidala" zioen aurpegia jarri zitzaion, iraileko aurpegia hain zuzen.

Erantzuna argazkilariak berak eman zion. Etorkizuna iragarri nahian bezala, agian

apropos ezarrita, atzekaldean eskuetan poltsak dituen emakumea ageri da. Badirudi neskatoak burua makurtu eta ikastolarako bidea hartuko duela, baina "bost axola! Ikastola baino nahiago ditut oporrak!". Guztiok horrelakoak izan bagina...

**LASAGABASTER**

**JANTZIDENDA**

*Bertan izango duzu beti modako gauzarik onenen aukera zabalena*

Zerkaosteta 1 eta 2, Tfnoak: 79 27 27 / 79 13 55 ARRASATE

Diego Martiartu

# EEBBarren bizimoduaz ase

**N**ormalean gaztaroa bizitasunez, pozez eta indarrez igarotzen den

garaia da. Diego Martiartu arrasatear gaztearenari, aipatutako ezaugarriez gain abentura-dohaia dario. Izan ere, 23 urteko mutil hau orain bi urte EEBBetara joan zen lagun bat bisitatzerako. Hango bizimodua ezagutzeko grina nagusitu zitzaion eta bertan pasatu zuen urte osoa.

— Bisitara joan eta bizitzen gelditu...

— Normala dela uste dut. Estatu Batuetara laguna bisitatzerako joan nintzenean, magisteritza bukatu berria nuen. Hilabetea pasatu zenean, etxera etortzekotan nengoan, erregaluak erosten eta horrela. Bapatean burura etorri zitzaidan, "Ze Kristo! bertan geldituko naiz". Hemen, aurrera begira inolako proiekturik ez nuen, erraza egin zitzaidan Chicagon gelditzea. Gainera, ondo pasatzeko eta amerikarren bizimodua era ezagutzeko gogoia nuen.

— Etxekoek nola hartu zuten erabaki hori?

— Hizkuntza ikastearen aitzakia aprobetxatu nuen. Joan nintzenean hizkuntzaren oinarri txiki bat banuela uste nuen, gero han konturatu nintzen ezer ez nekiela. Jo ta ke ibili nintzen ikasten, ingeles giroa aurkitzea jendeak uste duen bezain erraza ez delako. Uste nuen urte betean ingelesa ondo ikasiko nuela, baina hura mexikar eta portorrikarrez beteta dago, eta gainera nik normalean jende horrekin izaten nituen harremanak. Beraz, beti gaztelaniaz hitz egiteko aukera nuen.

— Eta han zer egiten zenuen?

— Gelditzeko erabakia



hartu eta segituan, lanean hasi nintzen, kamarero laguntzaile. Horrela behintzat dirua nuen poltsikoan.

— Erraza da lana aurkitzea?

— Lehenik esan behar da lanean ilegalki ihardun nuela. Hau da, Estatu Batuetan lana egiteko derrigorrezkoa da paperak izatea. Paperak izateko dokumentazio faltsua atera behar da, karta berdea deritzaiona. Hori egiteko, mexikar baten etxera joan nintzen, eta lauogei dolarren truke egin zizkidan paperok.

Lana ematen dutenek badakite paperak faltsuak direla baina berdin zaie, laneskua

merkeago lortzen dutelako. Kamareroen laguntzaile lanetan ibiltzea ere ez da arraroa, mexikar gehienek aurkitzen duten lana hori da eta. Alderdi horretatik, esan daiteke jatetxe guztiak ilegalki direla.

— Lanaz aparte, Chicagon zer bizimodu egin zenuen?

— Pisu batera bizitzera joan nintzen, arrasatear bat, zizurkildar bat, txikano bat eta neska amerikar batekin batera. Bizimodu gehiena pisuetan egiten genuen, geu joaten ginen beste pisu batzuetara edo beste batzuk etortzen ziren geurera.

Edozein hiri amerikar

handietan bezala, emigrante guztiak zentruan biltzen dira eta dirudunak kanpokaldeko etxetxoetan.

Urtebete pasatzeko ondo dago, baina denbora gehiago pasatuz gero zoratzeko arriskua dago. Guztia azkarregi doa.

— Toki arriskutsua da?

— Jende arraro asko ikusten da kalean, pistola bat lortzea ere ez da zaila, drogak oso zabaldua daude....

— Kale-girorik ez dago?

— Eguraldiak ez du asko laguntzen, neguan izugarrizko hotza egiten duen moduan udan kriston beroa egiten du, beraz ez da arraroa jendea etxetik ez ateratzea. Ia aukera bakarra, kontzertuetara joatea izaten da.

Bestalde, kuadrilaren ohitura hori ez dago, urtean zehar jende asko ezagutzeko aukera dago, baina ez oso sakonetik. Harreman gehienak oso azalekoak dira. Jendea asko mugitzen da.


— Eta "amets amerikarra"ren kontua egia da?

— Aukerak egon badaude, baina hamar mila pertsonetatik bati egokitzen zaio. Badago Bronxetik atera den jendea eta orain zerbait dena, baina orokorrean jende arruntarentzat bizimoduak ez du poztasun handirik gordetzen. Gauzak ez dira berdinak izaten guztientzat. Beltzak, txikanoak eta mexikarrak beste mundu batean bizi dira, ez dira amerikar sentitzen... nahikoa dute egunero bizimodua aurrera ateratzen beste gauza batzuetaz pentsatzen hasteko.

— Aspalditik datorkizu abenturarako zaletasuna?

— Estatu Batuetakoa momentuko erabakia izan zen. Dena dela, esango nuke bidaiak egiteko gogoia beti izan dudala. European zehar ere, ibilitakoa naiz.

“Paperak izateko dokumentazio faltsua atera behar da”



### Urriaren 12an, Galan-Losada


Zorionean daude Arrasateko boxeo-zaleak. Urriaren 12an, hain zuzen, Shanti Galanek Salamancako Losadaren aurka neurtuko ditu indarrak Musakolako kiroldegian, pisu arinen kategorian Espainiako Txapela lortzeko.

Shanti jo eta ke ari da prestakuntza lanetan, ez duelako nahi bere zaletuen aurrean huts egiterik. Neurketaren aurrekontua 1.300.000 PTAKoa da. Losadak 600.000 eramango dituen bitartean, Galan takilan batzen denarekin konformatu behar. Siltiera mondragoetarrak garajpena lortzen badu...

### 8.046 metroen bila

Dagoeneko Txinan daude *Shisha Pagma 91* espedizioaren sei partaideak: lau azpeitiar, Felix Azkarate eskoria-tzarra eta Alex Zubia mondragoetarra.


Sei milioi PTako aurrekontuaz, mendigoizale hauen helburua 8.046 metro dituen gailurra lortzea da. Abuztuaren 13an irten, eta Txinan daude aklimatazio egokia lortzeko. Laster abiatuko dira Nepalera, eta eguraldiak lagunduz gero urriaren hasieran egingo dute azken eraso.



### Central Jet-Euskal Air prest

Central Jet-Euskal Air taldea dagoeneko denboraldi berria prestatzen ari da. Formigalen egonaldia egin eta gero, egun hauetan burubelarri entrenatuko dute bigarren mailako ligari behar bezala aurre egiteko.

Txus Brizuelak jarraituko du entrenatzaile-lanetan. Joan den urteko jokalaria guztiak jarraituko dute, baita Saez de Biterik ere. Nahiz eta gasteiztarrak Muebles Martin edota Almeria bezalako talde indartsuen eskaintzak jaso dituen, Arrasaten jarraitzea erabaki du. Albiste pozgarria. Nobedade bakarra, Goierri taldetik etorritako Iñigo Aierbe izango dugu.



# Berango




## Sukalde-altzariak, mahaiak eta aulkiak

Erakusketa: Legarre pabiloia z/g, Gipuzkoa etorb. Tfnoa: 79 01 92 ARRASATE

# PODIUMA

## J. M. OTADUI "TXOSA",

### Berriz ere Mondran



**J**ose Mari Otadui, futbol-jokalari bizitzan talde asko ezagutu ditu. Eskolan futboleko jokatzeko hasi, gero Makatzenan, beranduago Mondran, handik Zornotzara, Eibar, Alavesera eta orain berriro Mondra taldera itzuli da. *"Beno, bizitzak buelta asko ematen ditu. Duela lau urte futbola uzteko nengoen, eta bapatean Eibarraren eskaintza etorri zitzaidan. Handik pasatu nintzen, Alavesen jokatu eta berriro Mondrara itzuli naiz"*. Mondrako zaleen artean asko aipatzen da Txosaren izena. Izan ere, goimailako talde batetik dator eta gainera, aurrendenboraldian erakutsi duen bezala, golak egiteko erraztasun handia dauka. *"Beno nire jokoa oso ezaguna da Arrasateko zaleen artean eta beraz, badakite daukadan guztia ematen dudana jokalaria naizela. Kallean, batzuk esaten dute ezinbestekoa izango naizela taldearen martxarako, baina hori ez da egia. Nik neure lana eskain dezaket, besterik ez, golak lortzeko zortea izan dezaket edo ez; ziurta dezakedan gauza bakarra ahaleginak egitea da"*.

Iaz ez bezala, Mondrak aurten gogor ekin dio denboraldiari, kanpoan irabazten hasi da eta. Emaizta hori eta

aurrendenboraldian egindakoak kontuan hartuta, aurten seguruenik jende gehiago hurbilduko da Atxabalpera. Horrek ez du gehiegi kezkatzen "Txosa". *"Hogeitamar urte dauzkat eta horietatik asko futboleko. Ondo jokatuz gero eta puntuak lortuz gero, badakit zaleak taldearen ondoan izango direla; ostera, gauzak gaizki badoaz, aurka jarriko zaizkigu. Jarraitzaile guztiak antzerakoak dira"*.

Arrasatearrak talde asko ezagutu ditu eta baita futbolaren inguruan mugitzen den jende asko ere. *"Inon ez dut arazorik izan eta alde guztietan ondo hartua izan naiz. Aldageletako giroa berezia izaten da, eta hortxe izan dut lagun gehienak egiteko aukera"*.

Jendeak beraregandik zer espero duen berriz aipatu, eta "Txosa" berriro erantzun bera. *"Nik bakarrik neure lana eskaini dezaket. Lesioak errespetatzen badidate ahal dudana guztia egingo dut"*.

#### ◆ Mondra - Mungia igandean

Datorren igandean, arratsaldeko bostetik aurrera, Arrasateko futbol-zaleek etxeko taldeak aurten Atxabalpen jokatuko duen lehen partidu ofiziala ikusteko aukera izango dute. Mondrako jokalariek, joan zen igandean Bermeon denboraldiari hasiera bikaina eman zioten, garaipenarekin etorri bait ziren. Igande honetan ere, garaipena dute buruan jokalaria arrasatearrek. Ea orain asmo huts direnak, igandean zelai gainean gauzatzen dituzten.

#### ◆ Omenaldi partidua

Javier Marco, Mondrako gazte-mailako jokalaria zenaren aldeko omenaldi-partidua burutuko da larunbatean goizeko hamaiketatik aurrera Atxabalpeko futbol zelaietan. Bost urtez Mondrako jokalaria izandako gazte honek iaz auto-istripua izan zuen Tafalla inguruan eta ondorioz bizitza galdu zuen. Omenaldian Mondrako jubilenen taldeak eta Tafallako Peña Sport-ek hartuko dute parte. Partiduari hasiera eman aurretik, Javier Marcoren gurasoei oroigarri batzuk oparituko zaizkie. Gero, "Contenedores Vicente" laguntzari esker, bazkaria izango da Udalpe elkartearen.

#### ◆ Gimnasia erritmikoa

Ginka Gazela taldekoekin gimnasia erritmikoa egiten hasi nahi duten guzientzat matrikula-epea zabalik dago kiroldegian, arratsaldeko 5.30etatik 8etara bitartean. Ikasturteari irailaren 16an emango zaio hasiera.

#### ◆ Aerobic-a

Aurten, Arantzazu Zubiaren eskutik, aerobic-a egiteko aukera izango da kiroldegian. Horretarako, izena ematea besterik ez da behar. Klaseak irailaren 16an hasiko dira.

"PAL"

burdindegia,  
brikolage  
eta tresneria

Urbarri etorbidea 3,  
Tfnoa: 79 31 99

GAZTEEN MODA! Bizkaia Etorbidea 1, Etxabea. Tfnoa: 77 14 24 ARRASATE

# Londreseko kronika

**H**iriburu britainiarak urte osoan duen musikazko eskaintzaren ugaritasuna areagotu egiten da uda partean. Hona hemen, adibidez, aste bakar batean ikusi ahal izan ditudan kontzertuak:

- Paul Brady irlandarra, Kentish Towneko klub batean. Bradyk, Irlandako folk-kean ospe handia lortu ondoren, pop-rockaren bidetik jo zuen duela hamar bat urte, emaitza nahiko interesgarriekin. Oraingoan, ordea, irteerarik gabeko bidean aurkitu dut Paul, ideia handirik gabe, behin eta berriro lehengo errepikatuzera mugatuta.

- Joe Zawinul eta bere

Zawinul Syndicate taldea, Candem Towneko Jazz Kafean. Liluragarria. Teklatu-jole austriarrak bide luzea eginga du jazzean, Miles Davis eta Weather Reportekin besteak beste. Talde propioa sortu zuenetik jazz-a beste hainbat musikarekin nahasten saiatu da, sarritan une majikoak lortu dituelarik. Azken boladan, produktore-lanetan ere badabil, Salif Keita maliarraren azken diskoa lekuko. Kontzertua zoragarria, apartekoa. Aspaldian ez dut entzun ondo emandako horrenbeste nota segidan. Great!

- Saint Martin in the Fields akademia, Alfred Brennel piano-jole austriarrekin, Royal Festival Hallen. Pro-

graman Mozart, nola ez. Baina Mozart maisuki interpretatua, perfekzio osoz, behar den moduan. Agian, gaur egun entzun daitekeen Mozart-ik perfektuena.

- Vivaldiren "Lau urtar-roak" eta Orff-en "Carmina Burana", Royal Festival Hallen hau ere. National Symphony Orchestra eta hiru koru ezberdin lanean, guztira 350 pertsona inguru. Espektakulu izugarria, dardara eragiteko modukoa. Ahantzezina.

Aparte, nahi dituzuen guztiak, Clapton, Costello, Guns'n'Roses, Alman Brothers, Milton Nascimento, Plácido Domingo, Metallica... Kontzertu bakoitza 12 liberatik gora kostatzen dela

kontatuz gero (2 talego baino gehiago, zuentzat) ezin, noski, guztietara joan.

Udako "chart" edo arrakasten zerrendetan Cher, REM eta Seal lehen postuetan. Harrigarria orain arte nahiko madarikatua izan den REM taldeak "Out of time" azken diskoarekin lortu duen arrakasta erabatekoa.

Diska-dendetan, berriz, konpaktoak nagusi eta bini-lozko diskoak txokoetan. Hori dela eta, aldi batean disko berririk ez erostea erabaki dut, eta lehendik ditudanak errepasatzea. Azkenean sartu egin beharko dugu konpaktoaren bidetik, baina nik oraingoz ez dut amore eman nahi. See you!

Michael Oldtown  
(Londresetik berriemaile)

## TELEGRAMA



**Adi kirolzaleok. STOP**

**Hasi dira merkealdiak Loramendi Kirolak-en. STOP**  
**Zapatilak (2.000 PTatik hasita lehen mailako markak). STOP**

**Kirol-jantziak, kamisetak, bainujantziak...**  
**Zure zain gaituzu. STOP**

**Loramendi Kirolak. STOP**



**LORAMENDI**  **KIROLAK**




# Batuta

## Jose Ramon Vitoria

Jose Ramonek 30 urte ditu, eta 6 urterekin hasi zen musika ikasten. Bere musika-ikasketak Donostian burutu zituen. "Etxean karrerabat egitea nahi zuten, musikaz gain beste zerbait egitea, baina nik nahiago izan nuen musikan inurgildu, horrekin nahiko lan banuen eta".

"Beti izan dut gogoko akordeoia. Gaztetxoa nintzenetik banekien zer nahi nuen eta lan horri ekin nion". Donostian ikasten ari zen bitartean bertako Akordeoi Orkestan jo zuen zazpi urtetan zehar. 1977an Frantziako akordeoi-txapelketa batean bigarren saria irabazi zuen. Orain Arrasate Musikalen ari da akordeoia irakasten, baina horrez gain, hamaikatxo saltsatan sartuta dabil. 1988-90 bitartean Gipuzkoako Akordeoi Federazioko lehendakaria izan zen. "Orain bi orkestekin ari naiz lanean: batetik, Arrasate Musikaleko Akordeoi Orkestako zuzendaria naiz, Orkesta hau orain lau urte inguru sortu zen, eta 30 partaide inguru izango gara guztira, eta bestetik, lagun-talde batek sortu-



tako orkesta batean ari gara, Txintxarri izenekoa".

Jose Ramoni denetarik probatzea gustatzen zaio, musika den edozer gauza du gustoko. Aurten San Andres eta Musakolako Eskola Publikoetan ibili da, 6-7 urteko umei musika irakasten. "Eskola-munduan dena, edo ia dena, egiteko dago, hau da, materiala bildu, behar bezalako programazioak egin eta sistematizatu etab... Horretan katalanak gu baino askosaz aurreratuago dabilta".

Jose Ramonen ustez hamaikatxo gauza daude egiteko oraindik, eta aurrera begira proiektu asko ditu. "Gauzak egin egin behar dira, gehiegi pentsatu gabe, musika herriarengana hurbildu. Adibidez, oso interesgarria iruditzen zait Arrasateko Trikitixa Eskola bezalako proiektuak herrian zabaltzea".

**"Eskola-munduan dena, edo ia dena, egiteko dago"**

## Txio txioak

### Goikobalu Saint Palais-era

Irailaren 29an Arrasateko "Goikobalu" abesbatzak iparraldeko Donapaleu herrira joango da, Lezoko "Txinparta" abesbatzarekin eta Bilboko "San Anton Ortefoia"rekin batera. Bertan, eguna pasatzeaz gain, iparraldeko bost abesbatzekin saio bat eskaintzeko asmotan dabilta. Arrasatetik goizeko zazpitan aterako dira, eta goizean Xabier Bellaporturekin izango dute entseia. Emanaldia, berriz, arratsaldeko bostetan hasiko da, eta parte hartuko duten abesbatzak honako hauek izango



dira: Burgaintzi, Elahec, Ensemble Vocal de la Cote Vasque, Mendiz mendi, Nekez ari eta Orai bat.

### Fertxu Aranburu hil zaigu

Musika eta Kantu munduarekin jarraituz, gaurkoan Fertxu Aranbururen hileta dugu albiste-gai. Fertxu, kantu-munduan oso ezaguna zen, bai Arrasaten bai bertatik kanpo ere. Parrokiako abesbatzako kantari izateaz gain, beti ibili izan da kantari han eta hemen. Besteak beste, Donostiako eta Bergarako orfeoietan. Zartzuelaren baten ere parte hartu izan du inoiz. Gure aldetik Fertxuren familiari doluminak ematea besterik ez zaigu gelditzen. Galera inportantea musika munduarentzat.

## BAKAILO ETXEA

Makailoa eta beroni buruzko produktuak

Makailoa, kroketak eta piper kazolak prestatzen ditugu

Mondragones 7, (Azoka ondoan) Tfnoa: 79 93 07 ARRASATE

## SANIDES

Parasitoel aurre egiteko  
Intsektu narrastiak akabatzeko.

Arratoiak ere kito!

URTEBETEKO GARANTIA

Erguin kalea 11, Bis. 3. ezk. Tfnoa: 79 22 81

## Beste herrialde batzuetako hizkuntz egoera: Belgika

**B**elgika Estatu bateratu bezala moldatu zen 1831n, baina hizkuntz eta kultur diferentziak kontutan hartu gabe. Denboraren poderioz hizkuntz eta kultur bikoiztasuna areagotuz joan ziren, norberaren nortasunaren kontzientziadun bi komunitate aurrez aurre jartzera heldu arte: Flandes eta Walonia. Bi etniok, flandestarra eta waloniarra, bizikide izatean datza belgiar arazoa.

1831ko konstituzioak, erresumako lehenak, hizkuntz askatasunaren printzipioa eman zuen, baina herrialde linguistikoen existentziaz jabetu gabe.

Harrez geroztik, eta sortzen ziren gatazkak zirela medio, askotan aldatu eta ukitu

izan dira belgiar lege linguistikoak, eta azkenik, 1963ko legeak lau herrialde linguistikotan banatzen du Belgika: flamenderadun herrialdea, frantsesekoa, alemanierakoa eta Bruselasko elebiduna.

Lurraldea zedarritzeak bere gorabeherak ekarri zituen eta flandestarrek gogoz onartu bazuten ere, waloniarrek muga linguistikoak giza errealitateari egokitzea eskatzen zuten, beraz, flandestarrak lurralde

estatutuaren alde zeuden bitartean, waloniarrek estatutu pertsonalaren alde agertzen ziren.


Komunitate bien arteko konfliktua zela bide, eta frankofonoen kultur eta ekonomi gailentasuna flandestarrren kaltetan indartzen ari zela ikusirik, 1970ean konstituzioaren berrikuste baten bitartez *lurraldetasun* printzipioa

baieztatu eta berrindartu zuten, aldi berean ekonomi lurraldeak sortuz.

*Lurraldetasunaren* berrindartze honi esker, flandestarrak irauli egin dute hizkuntzaren egoera, eta gaur egun Estatu hirueleduna da Belgika: %51 holandeseraz mintzo da, %32 frantsesez, %16k bata zein bestea daki eta gainontzeko %1aren hizkuntza alemana da.

Belgikako hizkuntz egoera ikusirik, konklusio hau ateratzeko: minorien hizkuntza eta kultura babesteko ezinbestekoa da *lurraldeatasun* printzipioa ezartzea, horrek ziurtatzen bait du hizkuntza txikien iraupena. *Estatutu pertsonalak*, aldiz, hizkuntza txiki horien irensketa dakar.

Atalataikoan



# HIRU

# UTILAJEAK

- **Doitasunezko mekanizazioak, plano eta langileen arabera**
- **Fresatzeko makinak**
- **Zenbakizko kontrola**
- **Mekanizazio-zentruak**
- **Tornuak**
- **Artezko makinak, etab.**

Zaldispe kalea 10, ARRASATE

Tfnoak: 79 67 80 / 79 05 61

95 Postakutxa. Telefaxa: 79 80 97

Goian Industrialdea. 24 Postakutxa

Tfnoa: 945-45 54 28 / 45 54 54 / 45 54 53

Telefaxa: 45 54 74, 01170 LEGUTIO

# Opor ostekoa

**A**buztuko oporrak igaro eta ikasturte edo lanurte berriari ongi etorria emateko prestatu gara. Utzi ditugu abuztuko pedalada guztiak.

Askok eta askok Landes- etako bide bazterrak zeharkatu dituzte. Beste hainbat Irlandan, Holandan, Frantzian, Catalunyan ibili da.

Herrian geratu direnak ere ibili dira, jakina; galde diezaiotela nik dakidan bati asteleheneko zaparradak, euri jasa ikaragarriak, zer eragin izan zuen.

Guzti hori atzean utzi dugu eta heldu zaigu txanda berria. Oraingoan udazkena prestatzen hasi beharko dugu. Badakizu, sasoi hau da garairik



1991ko maiatzaren Iean Atxarten.

aproposena mendian bizikletan ibiltzeko eta ondo aprobetxatu beharra dugu. Negua heldu orduko izango dugu aukerarik Nafarroa aldera edo beste norabait joateko. Jaizubi bat ere aukeran dugu: azaroaren 1, 2 eta 3an. Hiru egun horietan zeozer

prestatzeko moduan izango gara.

## Trabesiak

Gipuzkoan bada aukerarik herritik kanpo trabesia antolatuetan parte hartzeko. Lehena irailaren 22an izango

da Andoain herrian. Hurrengo irailaren 29an Lezon. Datorren hilean, urriaren 6an Hernanin eta urriaren 12an, Pilarika egunean, Tolosan. Beraz, ikusten duzu zenbat egokiera daukazun. Guzti hau azken momentuan aldatu ez badute antolatzaileek.

## Bizikleta prest

Oraintxe bertan da unerik egokiena bizikleta prestatzeko. Alde batetik balazten kableak ondo tinkatu eta egokitu. Gero gurpiletako kojineak eta katea koipeztu, gurpilak ondo puztu, radioak behar bezala kokatu, e.a. Gura izanez gero, badago lanik guzti hori gertaketan; ez zara garbatuko.

K. U.

# Pastorala Arrasaten

Datorren **larunbatean, Irailak 14**

**Monterron Parkean eta 4,30 etatik aurrera,**

**Muskildiarrek "HARIZPE" pastorala antzeztuko dute.**

## Antolatzaileak:

**AED elkarteak, Arrasateko Udala eta Maritxu kajoi Batzordea**



eta



-ren

LAGUNTZAZ


**Kontutan izan, datorren larunbatean**

**Monterronen dugo zita!**

Aste gazte

"Amoratzea, gaztearentzat loratzea, zahararentzat da zoratztea".

Esaera zaharra.



& Secretarial Skills" ikastaroa, Bergarako UNEDen, urritik martxora arte. Klase egunak: astearte eta ostegunak, 6etatik 8.30etara. Matrikula: irailak 5etik 20ra.

koloretan, teknika libre. Sariak: a) 50.000, b) 50.000 eta c) 150.000 PTA. Lanak aurkezteko epea: irailak 30.

tela, pentsio erdia, trasladoak eta aseguria).

• Tenerife edo Gran Canaria: 7 egun 30.080 PTA, 14 egun 34.780 PTA (hegalaldia Madriletik, hotela, trasladoak eta aseguria).

• Lanzarote: 7 egun 31.020 PTA, 14 egun 36.660 PTA (hegalaldia Madriletik, hotela, trasladoak eta aseguria).

Gazte-txartela

Lehiaketak

• "Gazte-txartela" kanpainarekin jarraitzen dugu. Badakizue: argazki bat eta N.A.N ekarri behar da. Adina: 15-25 urte. Dohain.

• "Sta. Anastasia" argazki-lehiaketa. Gai libre. Zuribeltzeko negatiboan oinarritutako edozein teknika. Bost sari: 20.000, 15.000, 10.000, 5.000 PTAko hiru sari eta garaikurrak. Lanak aurkezteko epea: irailak 16.

Ordutegia

• Berrito zuekin! Gogora ezazue irailaren 16ra arte udako ordutegiak jarraitzen dugula (goizez 11etatik 2etara). 16tik aurrera, berriz, goiz eta arratsalde izango gaituzue, 11etatik ordu batetara eta 5etatik 7etara.

Euskara barnetegiak

• *Majzpipe euskaltegia (Lazkao)*: ikastaro trinkoak, egunean bost ikastordutakoak. Iraupena: hilabetekoa. Maila guztiak. Prezioak: klaseak + pentsio osoa: 22.500 PTA. Beka eskatzeko aukera badago (galdetu Udaletxean, Euskara Sailean). Matrikula egiteko epea zabalik.

• "Caja Vital Kutxa" Nazioarteko I. Argazki Lehiaketa. Zuribeltzeko edo kolorez. Bi modalitate: a) gai libre, sariak: trofeo eta domina; b) gaia: "Araba zure ikuspegitik", sariak: 50.000, 30.000 eta 20.000 PTA eta trofeoak. Lanak aurkezteko epea: irailak 30.

TIVE bidaiak

• Adina: 26 urtetik behera edo 30 urtera arteko ikasleentzat.

• Bilbo-Londres hegalaldia: 19.400 PTA (irailaren 15era arte).

• Ibiza: 7 egun 29.140 PTA, 14 egun 44.180 PTA (hegalaldia Madriletik, hotela, pentsio osoa, trasladoak eta aseguria barne).

• Menorca: 7 egun 29.140 PTA, 14 egun 41.360 PTA (hegalaldia Madriletik, ho-

Emakumearen institutua

• Emakumearen institutuak dohaineko zerbitzu telefoniko bat jarri du martxan, eguneko 24 orduetan funtzionatzen duena. Honako gai hauei buruz eskaintzen du informazioa: juridikoak, osasuna eta planifikazioa, gizarte-zerbitzuak, institutuaren ekintzak eta enplegua. Zenbakia: 900 - 191010.

Ikastaroak

• "English for the Office

• *Komiki Lehiaketa*. Hiru maila: a) 15 urtera arte, b) 16-25, c) profesionalak. Gaztelera. Zuribeltzean edo

Informazio gehiago:

Gazte Zerbitzua,  
77 00 65

100 SERIEKO ROVER BERRIA

ROVER HANDIEN INDAR GUZTIA.


Miresgarria, 100 serieko Rover berria. Txikia, baina Rover handien indar guztiarekin. Teknologiarik aurreratuena du bere K serieko motore berrian -16V GTi-an-aleazio arinaz egina 95CVko indarra eman diezaiokena.

Eta zuri, eskatu nahi diozun guztia. Zeu bezain aparta du bere ekipamendua.

Ausartu eta helduiozu. Rover berria da 100 x100. \*



100 SERIEKO ROVER BERRIA  
ROVER 100 x 100



\* Azken salneurri gomendatua. BEZ eta garralo-gastuak barne. Ekipamendua: Erloju digitala. Atzeranzko ispihau eskutsean ere. Bira-kontadorea. Ixte zentralizatua. Aleaziozko lantak. Aurreko lehioren janagailu elektrikoak. Atzean spoiler-a. Atzean ere segurtasun-uhalak. Esarleku deportiboak. Dofuntza lunbarrara. Atzeko eserleku tolesgarria 60/40.



## ETXEBIZITZAK

- Aretxabaleta edo Arrasaten etxebizitza alokatuko nuke. Dei egin 79 10 60 tfnora. Dei egin 79 07 73 tfnora.
- Gela bat bi oherekin alokatzen da. Dei egin 79 07 73 tfnora.
- Hiru irakaslek etxebizitza alokatu behar dugu. Tfnoa: 88 28 63.
- Andre euskalduna behar da etxeko lanak egiteko. Goizez 8etatik 1ak arte. Tfnoa: 79 50 41.
- Erguinen etxebizitza salgai. Amueblatua, gas naturala, 3 logela, egongela, sukaldea, bainugela, 2 terraza. Eguzkitsua, bista ederrekoa. Garajea aukeran. Tfnoa: 79 93 42.
- Lokala alokatuko nuke ofizina bezala erabiltzeko. Tfnoa: 79 93 06.
- Gela alokatzen da bi oherekin. Tfnoa: 79 07 73.
- Bi neska behar dira pisua osatzeko Bilbon, (Logela konpartitua). Pisua handia eta polita da. Pertsona bakoitzak 15.000 PTA. Tfnoak: 79 24 08 Eva, eta 79 36 54 Maitane.
- Konpartitutako pisu alokatuan logelarik libre badaukazu, dei egin 77 06 90 tfnora.

- Fisika eta kimikako maisua behar da. (Injinerutza 1. mailarako). Dei egin 79 42 70 tfnora. Esteban.
- Neskak etxeko lanak egin eta umeak zainduko lituzke. Tfnoa: 79 99 17. M<sup>a</sup> Jesus.
- Neska prest lanak egiteko. Dei egin 79 49 05 tfnora.
- Klase partikularrak ematen dira (Fisika, Kimika eta Matematika). Dei egin 77 13 95 tfnora.
- Andre euskalduna etxeko lanak egiteko edo umeak zaintzeko prest. Tfnoa: 79 07 73.
- Klase partikularrak edo taldetan ematen dira (Espainiar hizkuntza, literatura, latin eta ingelesa) Tfnoa: 79 10 61. Goio.
- Euskara, ingelesa eta OHOKo klaseak ematen dira. Tfnoa: 79 90 08.
- Neska euskalduna etxeko lanak eta haurrak zaintzeko prest. Zazpi urteko esperientzia Donostiako Udal haurtzaindegian. Dei egin 77 02 90.
- Aretxabaletako Josteko Oihaldendak esperientzia duen jostuna behar du. Tfnoa: 79 80 90.

- Bi hilabete t'erdiko txakurkumeak salgai. Setter arrazakoak. Interesatuak dei egin 79 09 70 tfnora.
- Iozkitegiak erakusteko bitrina, Salbat labea estrenatu barik eta jogurtak eta esnea erakusteko bitrina salgai oso prezio interesantean. Dei egin 79 23 58 eta 77 00 91tfnoetara. Rosi.
- Lau edo bost lagunentzako kanping-denda salgai, aluminiozko tuboekin. Tfnoa: 78 04 89. Arriaran.
- Seat 127a salgai, SS-M, errebisioa pasatua, estra batzuk ere baditu. 100.000 PTA. Tfnoa: 76 61 05.
- Paseoko bizikleta bi salgai ditut 15.000 PTA. tan bakoitza. Dei egin 79 99 82 tfnora. arratsaldeko 8etatik aurrera.
- Ur-berogailua egoera onean salgai. Tfnoa: 79 97 72.
- Adria TY GRA karabana (4,10 m.) salgai. Lau pertsonarentzako tokia, hozkailua etab. Garajea edukitakoa. Tfnoa: 79 93 06.

## LANA

- Ilepaindegi batean egingo nuke lan. Ikasketak bukatu ditut. Tfnoa: 79 56 36.
- Lanak ordenadorez inprimatuko nituzke. Dei egin 79 13 26 tfnora. Maite.
- Euskara eta ingeleseko klase partikularrak ematen ditut. Tfnoa: 79 21 56.
- Edozein lan egiteko prest nago, nahiz eta hispaniar filologian lizentziatua izan. Yolanda. Tfnoa: 79 76 90.

## SALEROSKETAK

- R-14 GTL berebela salgai, IVA pasatua. Prezioa 125.000 PTA transferentzia barne. Dei egin 8etatik aurrera 79 58 98 tfnora.
- Seat Ritmo salgai. Dei egin 79 73 02 tfnora.
- Orbea mendiko bizikleta egoera oso onean salgai, llanta, piñoi eta ardatz berriak. Prezioa 40.000 PTA. Dei egin egunero 22.00etatik aurrera 79 54 65 tfnora. Garikoitz.
- Neskentzako paseorako Peugeot bizikleta salgai. Ia berria. Dei 79 13 49 tfnora. Maria.
- Egoera onean dagoen hozkailua erosiko nuke. Dei egin 8etatik aurrera 79 77 85 tfnora.

## DENETARIK

- Argazki-makina eramateko poltsa bat aurkitu genuen Udalan. Berreskuratzeko dei egin 79 52 80 tfnora. goizez (Edure) edo arratsaldez. (Miren).
- Txakur txiki bat galdu dugu. Marroia da. Aurkitu baduzu dei egin mesedez 79 14 29 tfnora. Ander.
- Nortasun-Agiria galdu dut. Manuel Ignacio Rebollo-ren izenean dago. Aurkitzen baduzu, deitu Arrasate Pressera.
- Txakurkumea gura baduzu deitu 79 82 81 tfnora. eta erregalatu egingo dizugu.



## ARRASATEN HILDAKOAK



Lucia Aldasoro Arana,  
abuztuaren 26an. 80 urte  
Juana Roman Albeniz,  
abuztuaren 27an. 86 urte  
Felipa Gonzalez Gramazo,  
abuztuaren 29ean. 90 urte  
Juan Alava Viteri,  
abuztuaren 29ean. 90 urte  
Pedro Garmendia Iriarte,  
abuztuaren 30ean. 77 urte  
Jesusa Inda Loza,  
abuztuaren 30ean. 86 urte  
Alex Goirizelaia Arruza,  
Irailaren 1ean. 58 urte.

## ORRIALDE HONETAKO IRAGARKIAK DEBALDE DIRA. TESTUA IDATZI ETA BIDALI GURE BULEGOETARA

TESTUA: .....

.....

.....

.....

.....

.....

.....

.....

.....


.....

Azoka kalea, 1. 20.500 ARRASATE

Tfnoa: 77 08 15

# Zer nahiago?

**Gerardo  
Uribesalgo**  
Arrasate Kristaldegikoa



- Txinako portzelana ala Muranoko kristala? Muranoko kristala esan beharko.
- Kristalak ala ispiluak erostekoan emakumeak ala gizonak? Gizonezkoak, askoz azkarrago erosten dute normalean.
- Kristal txuria ala beltza? Txuria nahiago dut, garbiagoa da eta.
- Ordulariak digitalak ala esferadunak? Esferadunak.
- Kukurutxoa ala kortea? Kukurutxoa.
- Lepotik zintzilik lauburua ala gurutzea? Lauburua.
- Urrezkoa ala zilarrezkoa? Zilarrezkoa.
- Irratia ala kaseta? Irratia.
- Mariturako gorbata ala pajarita? Gorbata.
- Prakar botoidunak ala kremaile radunak? Botoidunak.
- Kaleko ogia ala baserriko opila? Opila gehiago gustatzen zait.
- Antzerkia ala pastoralara? Antzerkia.
- Abentura ala hankak lurrean? Abentura.
- Lo ahoz gora ala ahozpe? Ahozpe.
- Egin ala ikusi? Egin.
- Barkamena eskatu ala burua zuritu? Barkamena eskatu.
- Oporretan bidaiak ala festarik festa? Bidaiak egin.
- Trenez ala hegazkinez? Hegazkinez.
- Kotxea ala motorra? Biak izugarri gustatzen zaizkit. Lehen Rallietan parte hartzen nuen; orain, berriz, motorrean ibiltzen naiz.

# Igarkizunak

## Landareak

1. Brontze-antzekoa tantaia esmeraldazkoa orria, zilarrezkoak loreak urrezkoak aleak.
2. Biribila naiz mundua bezala, gozoak dira nire atalak, on egin dagizudala eta ez bota lurrera azalak.
3. Txokolate kolorekoak gozoak bero-beroak, danbolinaren barrukoek ematen dute etxafleroak.
4. Bikoak ditu eta hobe balitu hirukoak, hain ditu goxoak Judasen urkatokiak!
5. Berde edo gorria naiz ortu-zaleek landatzen naute, eta ikasle alferrek ere sarri-sarri egiten naute.
6. Batzuetan beltzak bestetan zuriak, berdetan garratzak gero ardo-iturriak.
7. Liraina eta berdea gerria aurpegia gorria, bere begi beltzekin galsoroan da alaia.

1=Laranjondoa, 2=Laranja, 3=Gaztai-  
nak, 4=Bikondoa, 5=Piñera, 6=Mahatsa,  
7=Mitxoleta

**ITURRIOTZ taberna**

**GIRORIK**

**JATORRENA !!**

Tfnoa:79 16 04



**J. M. Heriz**

**Konpromezurik gabeko  
aurrekontuak**

Otalora Lizentziatua. Arrasate



San Juanetako hirugarren egunean, Biteri eskolan. 1950.

**S**an Juanetako hirugarren egunean, Biteri eskolan. 1950. Artean ez zen koadrilen egunik ospatzen San Juanetako hirugarren egunean. Esan beharra dago, hala ere, orduan jendea ez zela kanpora joaten herriko jaiak zirela eta. Mondragoetar guztiek ospatzen zituzten jaiak, kanpotik etorritako gonbidatu eta guzti.

San Juanetako hirugarren eguna gaitero eta txistularien kalejiraz hasten zen. Beranduago sokamuturra. Inoiz zezenak hanka egin eta Musakolaraino joan izan zen, bidean bazterrak ondo nahastu eta gero. Eguerdian Mondragoeko bandaren dantzagarriak. Arratsaldean Biteriko lorategietan zezenak aske egoten ziren, eta gauean, egunari eta jaietara amaiera emateko, Plaentxiako bandak jotzen zuen herriko plazan.

Egun hartan, eta egun hartan bakarrik -bestela txarto ikusita bait zegoen-, libre izaten zuten emaku-

meek tabernetan sartzea. Horren kausaz, ohiturarik ez eta, egun hartan ikusi ohi zen mozkorren bat edo beste emakumeen artean.

Goiko argazkia eguerdian atera zen, Mondragoeko bandak jo eta gero. Jendea Re Re-nerantz zihoala, baten bati argazkia ateratzea okurritu eta jende pilo bildu zen, koadrila askotakoak. Jende ezagun asko dago tartean: **Felix Ugalde, Karmelo Eriz, Oruna, Artorotz...** Egun hartan argazkiko asko Kanpantzarrera joan ziren bazkaltzera.

**PUB  
HAIZEA**



**ENARA**  
OSAGARRIAK

Maalako Errabala 21.  
20500 Arrasate  
Tfnoa: 79 62 32



## 9 ASTELEHENA

21.00 **Berriak**, Koldo Rodriguezek aurkeztutako albistegia.  
21.20 **Futbola**. Mondra-Mungia, 10 minutuko laburpena.




## 11 ASTEAZKENA

21.00 **Berriak**, Koldo Rodriguezek aurkeztutako albistegia.



## 13 OSTIRALA

21.00 **Berriak**, ATBren informatiboa, Koldo Rodriguezek aurkeztua.  
21.20 **Erretratoa**, J. R. Elortzak zuzentzen duen elkarrizketa. Gonbidatua: Joxe Aranzabal, Arrasate Press eta ATBko zuzendari ohia.



## 10 ASTEARTEA

12.00 Teletestua.  
13.00 **Berriak** (bezperakoa)  
13.20 **Futbola** (bezperakoa)

## 12 OSTEGUNA

13.00 **Berriak** (bezperakoa)

## 14 LARUNBATA

13.00 **Berriak** (bezperakoa)  
13.20 **Erretratoa** (bezperakoa)

# Lore *Iurrindegia*

Olarte kalea 10. Tfnoa: 79 14 99 ARRASATE

**Taberna lanetarako,  
neska euskalduna  
behar da.**

Tfnoa: 945 - 44 50 86



## ARANBURU COTEMAR

Garraio agentzia

Zalditze 3, Tfnoak: 78 52 34 / 79 53 99 ARRASATE



## ZUBIZARRETA TAILERRAK




Gipuzkoa Etorbidea 22  
Tfnoa: 79 15 65 ARRASATE



Zurgin Kantoi, 2

Tfnoa: 79 20 04

ARRASATE



# 77 08 15





# Telebegi

1990eko otsailaren 13an (13 eta asteartea) lehenengo aldiz emititu zuenetik, bide luzea bete du ATBk.

Bizi izandako gorabeheren inguruko ausnarke-tak egin eta gero, oporteta-tik bueltan hitz bat nagusitu da etxe honetan: Aldaketa.

Urriaren erdikaldetik aurrera eskainiko dizuegun programazio berriaren diseinua guztiz borobilduta ez dagoen arren, dagoeneko definitzen hasiak gara zeintzuk izan daitezkeen arda-tzak.

Batetik zera aipatu be-har: etorkizunean egunero emititzeko asmoa dauka-gula, arratsaldeko 8etan, astelehenetik ostiralera.


Bestetik, eta programa-zioari dagokionean, aurre-rantzean albiste-giak izango dira gure emanaldien zuta-be garrantzitsuena.

Itxuraldatuta etorriko diren informatibo horiekin batera, kirolak eta ekintza puntualen inguruko erre-portai zabalak bihurtuko zaizkigu protagonista.

Denboraren poderioz saio berriak gehituko ditu-gu; baina momentuz behin-tzat, aipatutako atal horiek izango dira biharko ATBren oinarriak.

Kompetentzia geroz eta gogorragoa datorkigun ho-netan, ezin ahaztu kate pri-batuak berehala helduko zaizkigula Arrasatera, gure erronka emanaldien maila hobetzea dugu. Ez da lan erraza. Lortuko ote?

JON ANDUEZA



**U**rtebete pasatxo eman dute lanean **Patxi Montero, Mikel Irizar, Pepe Arregi** eta **Hasier Bergaretxek**. Eurei

esker ostiralero zuon etxeetan izan duzue *Musikantoi* saioa.

Merezitako atsedena hartzeko ordua iritsi zaie, ordea. Aurrerantzean faltan somatuko ditugu ATBn, bai eurak eta bai euren umorea, estudioan sortu izan duten saltsa berezia.

Eskerrik asko lauri egindako lan handiagatik, eta nahi duzuen arte. Ondotxo dakizue non gauden.

# Telebelarri

◆ Sua hasi, eta hiru kilometrotara dauden suhiltzaileek ordu t' erdi eman zuten San Prudentziara etortzen Diputazioaren agin-durik heldu ez zitzaielako. Zertarako burokrazia hori?


(...) Penagarria izan zen. Garaiz helduz gero erraz kontrola-tzeko moduko sutea genuen. Boluntario bezala laguntzera azal-du ziren guztiei, berriz, nire eskerrik beroena eman nahiko nieke".

Felipe Altuna, San Prudentzioko auzoalkateak, *Berriak* saioan.



**ARIES**  
Martxoaren 21etik  
Apirilaren 20ra

Sekulako garrantzia emango diezu harreman sozialetan egunotan, atsegin egongo zara beraz inguru guztiarekin. Langile egongo zara eta bai lanean bai kirola egiteko orduan ez duzu inolako alferkeriarik izango. Eraginkor.



**LEO**  
Uztailaren 23tik  
Abuztuaren 23ra

Eraginkor egongo zara arlo guztietan eta orainarte gustora egin izan duzuna, are eta gustorago betetzen jarraituko duzu. Lagunarteko harremana primerakoa izango da eta etorkizunerako proiekturen bat sor liteke norbaitekin.



**SAGITARIUS**  
Azaroaren 23tik  
Abenduaren 21era

Hainbeste desio dituzun gauza horiek betetzeko momentu aproposa duzu oraingoa, ez egon dudu-mudatan. Laguna eta bion arteko harremana konpontzeko biderik aproposena elkarriketa lasai bat izan liteke. ez izan egoskorra.



**TAURUS**  
Apirilaren 21etik  
Maiatzaren 20ra

Gorabehera ugari sor liteke lagunarekiko harremanetan bereizten ez bazara. Tokian tokiko arazoak konpontzen saiatu, horren ondorio izango bait dira sortuko diren haserrealdiak. Urduitasunak ez zaitzala bere onetik ateratu.



**VIRGO**  
Abuztuaren 24etik  
Irailaren 23ra

Azkenean ateratu da Marte zure esparrutik eta aspaldidanik sentitu ez duzun barne pakea igartzeko modukoa izango da. Profesio arloan aurrera egiteko momentu aproposa da, beraz, ez ukatu inolako eskaintzarik. Lasai-lasai egongo zara.



**CAPRICORN**  
Abenduaren 22tik  
Urtarrilaren 20ra

Ez zaitetz urduri jarri eguneroko eginahalen emaitzen zain. Lagaiozu errekarari bere martxan joaten, iritsiko da eta. Etxeko giroa baretu egingo da eta zure onerako gainera, lasaitasuna eta pakea izango bait dituzu horretan.




**GEMINI**  
Maiatzaren 21etik  
Ekainaren 20ra

Primerako egoera emozionalean biziko zara datozen egunotan, bai lanean, bai maitasunean, bai harreman sozialetan gustora ibiliko zarela. Jatorduak zaintzea komeniko zaizu, baliteke horren beharrik ere ez sumatzea eta.



**LIBRA**  
Irailaren 24etik  
Urriaren 23ra

Marte sartu da zure zeinuan eta zure esku egongo da egoera honek emango dizkizun energiak bideratzea. Egoki bideratuz gero zeure buruarekin sekulako konfidantza lor dezakezu. Horrela egin ezear benetako haserrean bizi zintezke.



**AQUARIUS**  
Urtarrilaren 21etik  
Otsailaren 19ra

Besteekin harremana sortzeko izugarriko beharra izango duzu. Makal samar sentitzen zara eta baliteke behar horren ondorioz suertatutakoa izatea. Zure beharra ase bezain pronto hobeto sentituko zara. Animoso egongo zara.




**CANCER**  
Ekainaren 22tik  
Uztailaren 22ra

Lan-arloan egoki ibiltzeko, besteekiko harremanak sendotzea komeni zaizu. Lau begik bik baino hobeto ikusten omen dute, ez zaitetz hain zeurekoia izan, eman ere emazu. Maiteminduta zaude eta pertsona horrekin baino ez zara arduratzen.



**SCORPIO**  
Urriaren 24etik  
Azaroaren 22ra

Maitemindu edota maitasunarenganako daukazu ideia aldatzea tokatzen zaizu. Benetan zoriotsu egingo zaitu egoera honek lagunarekiko harremanetan. Ekonomia zaindu beharrean izango zara, dena erosi nahi izango bait duzu.



**PISCIS**  
Otsailaren 20tik  
Martxoaren 20ra

Oso gustora zaude egiten duzunarekin eta primerako ideiak etorriko zaizkizu burura etorkizunerako lagunduko dizutenak gainera. Bakardadean aspertzeko beta handirik ez zaizu suertatuko.



Asier Guenetxea

# SASIAIN sport

Errepide eta  
mendiko bizikletak

**AUKERA  
HANDIA**

Deba Garaiko  
bizikleta-denda

Zaraia 4, Tfnoa: 79 77 63  
**ARETXABALETA**





Folk jaialdia

# THE BARELY WORKS


- Irailak 12, osteguna
  - Gaueko 10.30etan
- Monterron Parkean
  - Sarrera: 500 PTA  
(Gazte Txartelarekin 300 PTA)



Arrasateko  
Udala



Gipuzkoako  
Foru Aldundia



# EUSKARA IKASTAROAK 1991-92

## 10 urte alfabetatze eta euskalduntze-lanetan

### 1. Aukera ezberdinen bidez:

- Alfabetatzen.
- Euskalduntzen.

### 2. Kolektibo ezberdinei zuzenduak

- Ohizkoak.
- Gurasoak.
- Enpresak.
- Administrazioa.
- Dendariak.

### 3. Guzti hau:

- 2,3,4 eta 5 ordutako erritmoan.
- Ikastaro laburrak.
- Neurrira egindako ikastaroen bidez.

### 4. Informazio gehiago:

- Matrikula: irailaren 2tik aurrera.
- Ikasturtearen hasiera: irailaren 16an.
- Badaude bekak.
- Bulego-ordutegia:

Goizez 9.00-13.00

Arratsaldez 15.00-20.00

**ARRASATEKO  
UDAL EUSKALTEGIA**

**Arimazuri 2 (Eskola Politeknikoaren ondoan)**

**Tfnoa: 79 70 77**